

GAZTEAK — PATRIARKATUA DESERAIKIZ

INDARKERIA MATXISTARIK
GABEKO MUNDU BATEN ALDE

Proposamen metodologikoa


InteRed
por una educación transformadora


Otra Escuela

IGUADA
TROCADA

Con la financiación de


GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



Egileak - Otra Escuela

Luisa María Ocaña Muñoz.
Mar Maiques Díaz.

Testuen berrikuspena

Guillermo Aguado de la Obra
María Monjas Carro.

Argitalpenaren koordinatzailea eta kolaboratzailea

María Monjas Carro.

INTERED

Vizconde de Matamala, 3, 1. eta 2. solairuak, 28028 Madril.
www.intered.org

OTRA ESCUELA

www.otraescuela.org

Ilustrazioa eta diagramazioa

Samuel Coronado (@samuel.coronado7).
Tatiana Coca Bogotá.

ISBN: 978-84-121198-1-7

Diciembre de 2019, Madrid (España).

Material honen lehenengo edizioa Nazioarteko Lankidetzarako eta Garapenerako Espainiako Agentziaren (AECID) finantza-laguntzarekin egin da. Euskarazko bertsioak Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (logoa) laguntza jaso du Argitalpen honen edukia InteRed Fundazioaren ardura da, eta ez du nahitaez Garapenerako Lankidetzaren euskal Agentziaren iritzia islatzen.

InteRed
por una educación transformadora



Otra Escuela



Con la financiación de



GOMENDIOAK

Gida hau erabiltzeko

Dokumentu hau gida praktikoa bat da indarkeria matxisten prebentzioan gazteekin lan egin nahi duten hezitzaileentzat (InteRed erakundeko langileak); arlo horretan hezkuntza-prozesuak aurrera eramateko tresna teorikoak eta praktikokoak ematea da dokumentuaren helburua. Horregatik gomendatzen da gidan jasotako hausnarketak, edukiak eta jarduerak hezitzaileek beren bizipenekin eta emozioekin lotzea.



Gida honek indarkeria matxisten prebentzioan gazteekin hezkuntza-prozesuak egituratzeko eta gauzatzeko alderdi teoriko eta praktikoko guztiak biltzen dituen arren, funtsezkoa da material hau erabiliko dutenek eurek egokitu ahal izatea, bertan lantzen diren gaietan, pedagogietan, metodologietan eta baliabide didaktikoetan aurretiazko prestakuntza-lan bat eginda. Horregatik gomendatzen da gidan jasotako hausnarketak, edukiak eta jarduerak hezitzaileek beren bizipenekin eta emozioekin lotzea.



Hainbat urtetan, eta hezkidetzaren ikuspegitik, InteRed erakundeak gazteekin garatu duen lan zabala egituratzen eta biltzen du dokumentu honek, eta egindako lan horri jarraipena ematen dio. Horregatik, dokumentuan jasotako ideiak aplikatzeko prozesuan, komeni da hezitzaileek ongi ezagutzea eta kontuan hartzea InteRed-ek gai horren inguruan sortu duen material-espektro zabala (gidan aipatzen dira).



Gida honetan egiten den hezkuntza-proposamenaren helburu nagusietako bat da lidergoen sorrera sustatzea eta horretan laguntzea, bai eta gazteak politikoki gaitzea ere, indarkeria matxisten eraldaketan funtsezko eragile izango diren aldetik. Horregatik, gidaren azken xedea da gazteak eurak gai izatea, beren kasa eta beren interesen eta beharren arabera, indarkeria matxistak eta horien kausak identifikatzeko (maila pertsonalean, beren inguruan eta maila globalean), bai eta sentsibilizaziorako, mobilizaziorako eta eragin politikorako tresna eta estrategia propioak diseinatzeko ere.

AURKIBIDEA

1

Gida hau erabiltzeko gomendioak

2

Sarrera

- a. Aurrekariak
- b. Justifikazioa: zergatik eta zertarako gida didaktiko hau
- c. InteRed eta Otra Escuela erakundeen arteko harremana

3

Ikaskuntzaren zuhaitza



I. Oinarri pedagogikoak

- a. Definizioa
- b. Ikuspegiak: zer hazi ereingo ditugun



II. Metodologia

- a. Definizioa
- b. Ikuspegi sozio-afektiboa
- c. Errazteko gakoak



III. Baliabide didaktikoak

- a. Definizioa
- b. Indarkeria matxistei aurrea hartzeko jarduerak



IV. Indarkeriarik gabeko eraldatzearen fruituak

4

Jardueren fitxak

5

Bibliografia

2 SARRERA

a. Aurrekariak.

InteRed **Institución** **Teresiana**, erakundeak sustatutako GGKE den aldetik, erakunde horrek –emakumeen genealogia luze baten bitartez– historian zehar emakumeen eskubideen alde egindako lanaren sustatzailea da; hala, nabarmen lagundu du emakumeak hezkuntza-munduan sartzen eta haien eskubide sozial eta zibilen alde borrokatzen.

InteRed-ek, gainera, pedagogia kritiko eta askatzailearen hainbat korrante ditu ikaskuntza- eta inspirazio-iturri. Zehazki, **Garapenerako eta herritartasun globalerako hezkuntzaren** (GHGH) pentsamendua eta praktika da bere eragin-iturri nagusietako bat, mundu global batean bizi garela jabetzea dakarrena, errealitate desberdin eta urrunez, baina, aldi berean, elkarlotuez, eratuta dagoen munduan.

Garapenerako eta herritartasun globalerako hezkuntzaren esparruan, hainbat kanpaina egin dira generoan eta garapenean sentsibilizatzeko, hezteko, mobilizatzeko eta politikoki eragiteko.

Besteak beste, eta bizitzaren jasagarritasuna garapen-ereduaren erdigunean jartzeko asmoz, **“Zaintzak biziz, errealitatea eraldatu” kanpaina sortu zen 2012an, bai eta horren bigarren fasea ere, “Zaintzen iraultza” (2016)**; horretarako, izen bereko materiala hartu zen oinarri. Proposamen horren bitartez, bizi garen gizarteari buruz hausnartzea sustatu nahi da,

eta, horrekin batera, aldaketa bat planteatu nahi da, zaintzaren etikan eta pertsona ororen giza eskubide guztietan oinarritutako garapen-eredu berri bat sustatzeko. Garapen-eredu berri bat, merkatuen zentraltasunaren aurrean, pertsonak eta, oro har, bizitza, bai eta planetaren bizitza bera ere, erdigunean jartzea helburutzat duena. Horrez gain, eredu berri horretan, zaintzen ardura kolektiboa bultzatzen da, eta, beraz, emakumez gain –historikoki, emakumeek izan baitute ardura hori–, Estatuak, enpresek eta gizonek ere arlo horretan esku hartzea aldarrikatzen da, “zaintzak” ongizate-estatuaren laugarren oinarritzat hartuta eta zaintza horren aldeko politika publikoak bultzatuta. Eduki teorikoak biltzen dituzten bi dokumentuek, ikus-entzunezko edukiak, material didaktikoek eta mobilizatzeko materialek, eta InteRed erakundearen ordezkaritza guztiek aurrera eramaten dituzten ekintzek, bai eta kanpainaren iraupenak berak ere, jabetza-osagai bereziki esanguratsua ematen diote kanpainari erakundearen baitan. Gainera, eztabaida publikoa bultzatzen du, zaintzen arloan egindako greban nabarmendu zena; ekimen hori, hain zuzen, 2018ko martxoaren 8ko lehen greba feministaren parte izan zen.

Kanpaina horren baitan garatu zen **“Gazteak zaintzak biziz” gazteen parte-hartzerako metodologia**, gazteak ahalduztzeko prozesu bat bultzatzeko, eta, horren bitartez, desparekotasunean oinarritutako sistema bidegabea aldatzeko alternatibak sortzeko. Proposamenare¹ helburua zen mobilizazio-taldeetan antolatutako



1. InteRed (2017) Gazteak zaintzak biziz. Gazteen gizarteko parte-hartzea bultzatzeko proposamena.

gazteei bizi-esperientzia eraldatzaile bat izaten laguntzea (sentsibilizazioa – prestakuntza–kontzientziazioa–ekintza), mobilizaziorako eta eragin politikorako ekintza kolektiboak diseinatu eta praktikan jar ditzaten, beren hezkuntza-zentroetan, auzoetan, hirietan eta tokian tokiko errealitateko beste eremu batzuetan aldaketak eta hobekuntzak aldarrikatzeko. Gizarte-mobilizazioa ez du emaitzatzat planteatzen, herritarrak hazteko bidetzat baizik. Taldeak bere buruaz hausnartzen du, bai norbanako gisa, bai talde moduan, eta zentzu kritikoa eta hausnarketa garatzen ditu, errealitatea zalantzan jarriz, bai subjektibotasunetik bai generoaren eta zaintzen ikuspegiak emandako gizarte-ereduaren azterketatik. Horrela, mundu mailan eragiten diguten arazoak aitortuz, eta herritarrok aldaketaren eragile gisa dugun protagonismoaz jabetuz, norbanakoak eta taldeak ahalduztzeko prozesu bat hasten da, pixkanaka aukera ematen duena norbanakoek eta taldeek ekintzara pasatu ahal izateko zer gaitasun eta aukera dituzten aztertzeko; horretarako, testuinguru hurbilenean, komunitateetan eta/edo hezkuntza-zentroetan aldaketa sozialak eragiten, erakusten, aldarrikatzen eta inspiratzen dituzten sormenezko ekimenak diseinatu eta ezarriko dira.

Esperientzia ugari bizi ahal izan dira **“Gazteak zaintzak biziz”** ekimena Espainiako hainbat probintzian abian jarrita, eta horri esker jabetu gara zein garrantzitsua eta baliagarria den gazteekin lan egitea; horrez gain, ikasgai garrantzitsuak atera ditugu testuinguru, gizarte-maila, jatorri eta sinesmen desberdineko gazte-taldeekin lan egiteko prozesutik.

Bestalde, nazioarteko lankidetzari dagokionez, InteRed-ek eskola-eremuko indarkeria matxisten prebentziorako hezkidetza-proiektuak ezarri ditu Bolivian, 2016az geroztik; hala, prestakuntza-prozesuak egin dira irakasleekin, familiekin, gazteekin eta

nerabeekin, eta, besteak beste, gazte-taldeak eratu dira aldaketa-eragiletzat, beren kideak sentsibilizatu eta mobiliza ditzaten. Hiru urtez etengabe lanean aritu ondoren, eta aipatutako kolektiboekin abian jarritako ekintza guztiak kontuan hartuta, agerian geratu da gazteekin lan egitea dela, zalantzarik gabe, gehien indartzen ari den ekimena, bai eta emaitza onenak ematen dituen ere; bereziki aipatu behar da gazte-taldeak eratzea aldaketa-eragiletzat, beren estrategia artistikoen eta komunikazio-estrategien bitartez eragile biderkatzaile bihurtzen direnak.

b. Justifikazioa: zergatik eta zertarako gida didaktiko hau.

Une honetan, InteRed kanpaina berri bat abian jartzen ari da, **“Berdintasunerako garaia”**, indarkeria matxistarik gabeko mundu baten alde konprometitutako herritarrak sortzeko. Kanpaina honetako protagonistak **(xede-populazioa) hezkuntza-eremu formaleko eta ez-formaleko gazteak** izango dira. Ikusi dugun moduan, zalantzarik gabe, gazteekin eta nerabeekin egindako hezkidetza-lanak ematen ditu emaitza onenak indarkeria matxistak desagerraraztea ekarriko duten herritar aktiboak eta konprometituak sortzeari dagokionez. Aldaketei irekita egotea, beste gazteekin izaten dituzten harremanetan eragiten duten genero-desberdintasunak zalantzan jartzea, haurtzarotik jasaten dituzten jokabide-eredu matxistak aldatu nahi izatea, eta, gizarte eraldatzeko aukeraren aurrean, sormena eta grina izatea... Jarrera horiek, lorpen txikien bitartez, proposatzen dizkiguten iruditeria eta diskurtso



berrien berme dira, bai eta ezartzen dituzten harreman berrien eta asmatzen dituzten proposamen politiko berrien berme ere; hau da, gizon-emakumeen arteko harreman horizontalak, osasungarriak eta berdinzaleak izango diren etorkizun baterako bidea irekiz joan daitezkeela adierazten dute.

“Gazteak zaintzak biziz”

metodologiaren bitartez Espainian gazteekin egin den lanak agerian utzi du ikasleek beren hezkuntza-zentroetan eta/edo tokiko inguruetan garatutako mobilizazio-ekintzak eta ekintza politikoak baliagarriak izan direla neska-mutilak motibatzeke eta ahalduztzeko; hala, jabetu dira gaitasuna dutela beren hurbileko eta eguneroko errealitateak eraldatzeko, egungo errealitate globala ikuspegi kritiko eta propositibo batetik aztertuz.

Horregatik, kanpainaren helburu nagusietako bat izanik *gazteek indarkeria matxistak eta horien kausak (maila pertsonalean, beren inguruan eta maila globalean) identifikatzea, eta sentsibilizaziorako, mobilizaziorako eta eragin politikorako tresna eta estrategia propioak diseinatzea, emakumeek eta neskek indarkeriarik gabeko bizitza aske bat izateko duten eskubidea eskatzeko*, gazteen parte-hartzea bultzatzeko metodologia bat izan nahi genuen, aipatutako helburu hori lortzeko eta errazteko; horretarako, oinarri hartu dira bai **“Gazteak zaintzak biziz”**, metodologia egiten eta abian jartzen ikasitakoa, bai emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioarekin lotuta nazioartean (berezi, Latinoamerikan) garatutako lankidetzaz-prozesuetan izandako esperientziak eta bizipenak.

Kanpaina berriak lotura zuzena du aurrekoarekin, baina modu espezifikoan sakondu nahi izan da sistema patriarkala zalantzan jartzen den ideia horretan, emakumeen eta neskatoen aurkako diskriminazioaren eta indarkeriaren eragile den aldetik. Beraz, gure

ekintzei beste zentzu bat emateko eta kanpaina berriaren esparruan kokatzeko, metodologia berriari **Gazteak patriarkatua deseraikiz, indarkeria matxistarik gabeko mundu baten alde** izena jartzea proposatu da; bestalde, aipatutako prozesuetan ikasitakoa baliatuz, ezaugarri hauek izan ditzan lortu nahi da:

1 Tresnak eta baliabideak ematea, metodologia aplikatuko duten InteRed-eko langileek metodologia hori bere egin dezaten; horretarako, InteRed-ek urteetan zehar garatu dituen eta bere misioa nahiz egiteko moduak zehaztu dituzten kontzeptu- eta metodologia-oinarriak hartuko dira abiapuntutzat. Gainera, Otra escuela erakundea lantzen ari den ikuspegi sozio-afektiboari buruzko proposamenetik elikatzen da. InteRed-en jardunarekin bat, haren funtsezko helburua da ikaskuntza gorputzarekin eta emozioekin lotzea; horrez gain, ikasleek norbanako gisa eta taldean hausnartzea sustatzen du, eta norberaren bizipenak eta emozioak erdigunean jartzen ditu, beren inguru eraldatzeko proposamenak sustatzea azken helburutzat hartuta.

2 Ezagutzaren kolonialtasunaren dinamika eurozentrikoarekin haustea (Lander, 2000); ikuspegi horren arabera, ezagutza baliagarria Europan sortzen da, eta hegoalde osora esportatzen da, han sorturikoa desjabetuz edo baliogabetuz. Horretarako, hegoaldeko begirada ekarri behar da, beste testuinguru batzuetan (berezi, Kolonbiakoan) sortutako ezagutzak, jakintzak eta praktikak aitortzeko eta partekatzeko aukera emango duena, jakintzen inguruan hitz egiteko eta Espainian InteRed-ek egiten duen lana elikatzeke. Xedea ez da jakintza eta praktika horietaz jabetzea (eta, berriro ere, dinamika eurozentrikoan erortzea); aitzitik,



begirada zabaldu nahi da, bai eta erreferente teorikoak eta politika- nahiz hezkuntza-praktikak ere, menderatze-sistemen aurrean eraldaketa soziala bilatu nahian, testuinguru desberdinen artean elkarrizketa horizontalerako eta ekintza bateraturako zubiak eraikitzeko.

3 Sistema patriarkala zalantzan jartzea, genero-desparekotasunen eta emakumeen aurkako indarkeriaren oinarri den aldetik; norberaren bizipenetatik abiatuz, gure nortasunen eraikuntzan sakonduz joatea da xedea, eta gure garapen-eredurako balio funtzionaltzat identifikatzea.

4 Mekanismoak izatea, bozeramailetzea eta komunikazio-abiaketa indartzeko, bai eta gazteen ekimen politikoa ere, prozesuaren lorpena ez dadin izan hezkuntza-zentroetan eta/edo auzoetan mobilizazio edo sentsibilizazio-ekintza puntual bat egitea soilik; hau da, gazte-talde iraunkorrak sortu nahi dira, prozesua amaitu ondoren autonomiaz funtzionatu ahal izango dutenak, eta beren auzoetako beste erakunde eta elkarteekin elkarlanean arituko direnak.

C. InteRed eta Otra Escuela erakundeen arteko harremana.

Material hau sortzeko, InteRed eta Kolonbiako Otra Escuela (OE) GKEa elkarlanean aritu gara.


2000. urtean eratu zenetik, Otra Escuela erakundeak Bakerako

Kulturak eta Pedagogiak eraikitzen lan egin du, heziketarako jokalekuak, kultura-kudeaketa, esperientzien sistematizazioa eta ikerkuntza bultzatuz, eta Kolonbiako, Latinoamerikako eta Espainiako eskualde desberdinetan abiatutako askotariko prozesuetan lagunduz. Bogotan eta Santander de Quilichaon (Kolonbia) ditu bulegoak, bai eta Madril (Espainia) ere, eta diziplina anitzeko jendeak eraturako talde bat da; pertsona horiek hizkuntza artistikoaren, jolasaren, sormenaren, neuro-bizikidetzaren, ikuspegi sozio-afektiboaren eta Bakerako hezkuntzaren bitartez egiten dute beren lana.

Taldearen eginkizuna artearen eta psikoterapien erabilerarekin dago lotuta, bai komunitateekin lan psikosoziala egitean, bai gizarte-ehuna indartzean; horrez gain, ekimen hauek ere bultzatzen ditu: bakerako hezkuntzarako baliabideekin, neuro-bizikidetzarekin eta giza eskubideekin lotutako prestakuntza ematen die hezitzaileei; tresna pedagogikoak indartzen ditu, eskoletan eta erakundeetan artearen eta jolasaren bitartez gatazkak konpontzeko; kohesiorako eta norbera nahiz besteekiko harremanak zaintzeko ingurune egokiak sortzen laguntzen du; eta arreta ematen dio neke profesionlari, hainbat erakundetako lan-taldean barruan.

InteRed eta Otra Escuela erakundeen arteko aliantzaren xedea da biek erakundeak proposamenen artean loturak egitea, eta gida hau aberastea Otra Escuela erakundeak pedagogia alternatiboen eremuan eta bakerako kulturaren eraikuntzan duen esperientziarekin. Xede hori lortzeko, InteRed-eko lantaldea prestatu egin da, eta gida honen proposamena egin eta idatzi da; bertan, ikaskuntza sormenean eta elkarrizketan oinarritutako prozesutzat hartzea proposatzen da, pedagogiak, metodologiak eta didaktikak bat egiten duten prozesutzat.





“Hezkuntza hezitzailea-ikaslea aurkakotasuna gaituz hasi behar da. Bi aldeek uzta eta oinarritu behar da, bata zein bestea, aldi berean, hezitzaile eta ikasle izan daitezke”.

Paulo Freire



3 IKASKUNTZAREN ZUHAITZA

Ikaskuntzaren zuhaitza.

Benetako eraldaketa soziala lortzeko hezteak *norbanakoen eta taldeen PROZESU bati buru hitz egitea adierazten du; prozesu horren bitartez, pertsona bakoitzak eremu partekatu bat aurkitu ahal izango du, hausnartzeko, ezagutzeko, informazioa biltzeko eta zer gizarte-eredutan bizi den jabetzeko, eta, horrela, besteekin batera ekintzak planteatu ahal izateko.*²

InteRed-en, hezkuntzarako eskubidea bermatzen laguntzen duten irakatsi eta ikasteko prozesuak bultzatzen dituen hezkuntza-eredutzat hartzen dugu Hezkuntza Eraldatzailea, ulerturik hezkuntza munduko pertsona eta komunitate guztientzako ondasuna dela, begirada humanista eta inklusiboa duena, eta era guztietako aniztasunak aitortzen eta balioesten dituen. Herritartasun global kritikoa, arduratsua eta konprometitua sustatzen du. Hau da, maila pertsonalean zein kolektiboan, tokiko eta munduko errealitatearen eraldaketarekin konprometitutako herritarrak sustatzen ditu, mundu justuago, bidezkoago, eta aniztasunarekin eta ingurumenarekin arduratsuago bat eraikitzeko, pertsona guztiok libreki eta egoki garatzeko aukera izango dugun mundua³.

1 Hezkuntza eredu horrek hau dakar:

Ikasleen parte-hartze aktiboa sustatzea; hau da, ezagutza eta ikaskuntza modu kolektiboan eraikiko dira, norberaren bizipenak eta hausnarketak oinarri hartuta, eta, horrela, pertsonen ahalduntzea bultzatuko da.

2 Errealitatearen irakurketa kritikoa egitea; errealitate hori aztertzeaz batera, errealitate horrekiko konpromisoa hartuz joango gara, eta hura eraldatzeko “ardura” gure gain hartuko dugu.

3 Nagusi den eredu hegemoniko patriarkalean aldaketak egitea, balio hauek bultzatuko dituen sistemari eta munduari bide emateko: justizia soziala, ekitatea, eta ingurumenarekiko nahiz aniztasunarekiko errespetua.

Hezkuntza-prozesu bat gauzatzera goazenean, irakasle edo bideratzaile garen aldetik gure eskura ditugun ezagutza eta bizipen guztiak baliatzen ditugu. Gure baliabideak askotarikoak izan arren, irakatsi eta ikasteko prozesuaren konplexutasunak hezkuntza-ekimenaren helburua zehaztera garamatza, sortu nahi ditugun edukiek, jarduerak edo hausnarketek zentzua eta koherentzia izan dezaten.


Horregatik diogu, hezkuntza-prozesu orotan, elkarren artean batzen eta lotzen diren hiru kontzeptuk esku hartzen dutela: pedagogiak (hezkuntza-ekintzaren printzipioak), metodologiak (hezkuntza-ekintzaren uneak) eta didaktikak (hezkuntza-ekintzaren barruko teknikak). Ohikoa da didaktikari gehiegizko garrantzia ematen zaion hezkuntza-egoerak aurkitzea (formalak nahiz ez-formalak); hau da, jarduerak, dinamikak eta ariketak biltzera eta aplikatzera bideratzen dira ahaleginak eta baliabideak, eta alde batera uzten dira osagai pedagogikoak eta metodologikoak, heziketa-prozesuak jardueren zerrenda hutsekin edo tresnakarekin egituratuko balira bezala, zenbait galderen inguruko inolako sormen- eta hausnarketa-prozesurik egin gabe (hala nola zer zentzu duen ikaskuntzak, zer eduki irakatsi behar diren, eta nola jokatu behar den norberaren ideien arabera, prestakuntza-prozesuak praktikan jartzean).

2. InteRed (2019) *InteReden posizionamendu posizionamendu instituzionala hezkuntza eraldatzaile baten alde.*

3. InteRed (2019) *Indarkeria matxistarik gabeko mundu baten aldeko konpromisoa duen herritartasun global baterantz hezten.* 82. orrialdea.




Pedagogiaren, metodologiaren eta didaktikaren artean zer lotura dagoen azaltzeko, eta eduki horiek heziketan zein funtsezkoak diren argitzeko, **zuhaitzaren metafora** proposatzen dugu, oso argigarria iruditzen baitzaigu.



Begirada honen bitartez, zuhaitzaren osagai bakoitzaren protagonismoa orekatu nahi dugu, guztiak hartzen baititugu funtsezko ataltzat; atal horiek, gainera, elkarrekin lotuta daude. Gure iritziz, edukiaz gain, garrantzitsua da proposatutako gizarte-hezkuntzako prozesuan erabiltzen ditugun teknikak, metodoak eta baliabide didaktikoak koherentzia izatea (InteRed, 2017:15). Pedagogiaren (hezkuntza-ekintzaren printzipioak), metodologiaren (hezkuntza-ekintzaren uneak) eta didaktikaren (hezkuntza-ekintzaren barruko teknikak) arteko koherentziatzko harremana bilatzea, hain zuzen, pedagogoari dagokio. Hurrengo lerroetan, metafora baten arabera azalduko ditugu kontzeptu horiek.





“(...) zapalduen pedagogia, kultura kapitalistak, patriarkalak, arrazistak, homofobikoak, inperialistak eta bortitzak hainbat modutan iraindu dituen pertsonena; gure ibilbidearen, norabidearen, subjektu bihurtzeko aukera ematen digun pedagogia, gure helburuak berritzeko aukera ematen duena, bai eta aurrera egiteko aukeratzen ditugun formak eta erritmoak berritzeko ere.”

Claudia Korol



**Oinarri
pedagogikoak**

I. Oinarri pedagogikoak

a. Definizioa.

Pedagogia, zuhaitzaren metaforaren arabera, hazia izango litzateke, abiapuntua. Erein aurretik, zer zuhaitz-mota izan nahi dugun galdetuko diogu geure buruari, hazi egokia aukeratu ahal izateko. Haritza nahi badugu, haritzaren hazia aukeratuko dugu; oster, pinua nahi badugu, pinuaren hazia aukeratuko dugu.

Bistakoa dirudien arren, prestakuntza-prozesu bati ekiten diogunean, ereite-prozesuan bezala, prozesuaren bitartez zer lortu nahi dugun galdetu behar diogu geure buruari, zer uzta lortu nahi dugun, beste era batera esanda, **prozesuan zer eduki eta, batez ere, zer balio transmititu, eraiki eta indartu nahi ditugun.**

Haziak (hau da, pedagogiak) gure hezkuntza-helburua zehazten duten osagai guztiak izan behar ditu. Guk, hezitzaile garen aldetik, gazteen artean tratu ona, ekitatea eta indarkeria matxistaren prebentzioa sustatu nahi ditugunez, helburu horrekin koherenteak diren pedagogiak erabili beharko ditugu, eta metodologia (enborra) eta didaktika (adarrak) aintzat hartzen dituztenak.

Beraz, heziketa-ekintza (irakatsi eta ikasteko prozesua) zuhertasunez azaltzen duen jakintzatzat ulertzen dugu pedagogia. Hau da, **pedagogia ekintzari / nire hezteko ekintzari buruzko hausnarketa, ikerketa eta haren zentzuaren bilaketa da.** Hain zuzen, **pedagogoak hausnartzen du hezkuntzari eta, bereziki, heziketa-praktikei buruz.** Hausnarketa-ekintza horretan, gai hauen inguruan sentitu eta pentsatu behar dugu, eta proposamenak

egin:

- Zertarako hezi behar den
- Zer eduki dituen heziketak
- Zer sekuentzia duten eduki horiek
- Nola hezi behar den
- Zer baliabide erabili behar heziketa-ekintzan eta nola baloratzen den (esku hartzen duten subjektu guztiek).

b. Ikuspegiak: zer hazi ereingo ditugun.

Indarkeria matxistaren prebentzioan gazteak eragile izatea ekarriko duen hezkuntza eraldatzaile baten alde egiteko, oinarri pedagogiko sendoak izan behar dira abiapuntutzat, gure helburuarekin koherentzia dutenak.

Oinarri horien funtsa egun indarrean den hezkuntza-eredu androzentrikoa eta heterosexista zalantzan jartzea da. Finean, hezkuntza-eredu nagusien alternatiba izango den pedagogia behar dugu.

Horregatik, hurrengo lerroetan azalduko dugu zer hazi ereingo ditugun gazteak indarkeria matxistaren prebentzioan hezteko gure hausnarketa- eta sormen-prozesuari zentzua emateko.

1

Pedagogia feministak eta hezkidetzak

Gure lehen hazia pedagogia edo pedagogia feministak dira, hezkuntza-eredu nagusiei modu alternatibo eta kritiko batean begiratzen diotenak.



InteRed-en, hezkidetzaren alde egiten dugu, gizartearen eta munduaren eraldaketa sustatzen duen hezkuntza-eredutzat ulertzen baitugu; horrez gain, feminismoa –pedagogia eta apustu politiko gisa– hartzen da, besteak beste, gizarte-eraldaketa hori lortzeko erreferentziatzat eta gidatzat. Feminismoa inspirazio-iturritzat aitortuz, batetik, feministatzat definitzen diren hezkuntza-proposamenak eta -korrontek adierazi nahi ditugu, eta bestetik, XIX. mendetik gaur egunera arte hainbat feminismo-korrontek egindako postulatuak hezkuntzan izan dituzten ondorioak, bai eta emakumeek pedagogiaren historian zehar egin dituzten ekarpenak ere (ikusezinak, askotan).

Historian zehar, hainbat gizartetan ezarri ziren genero-sistemak, eta ezarpen horiek *emakume izateari* buruzko ideia filosofikoek babestu zituzten, bai eta, beren ezaugarri biologikoak zirela-eta, emakumeen mendekotasun estrukturala sostengatzen zuten hezkuntza-hausnarketek eta -praktikek ere.

90eko hamarkadaren erdialdera, teorialari feministek agerian utzi zuten eredu pedagogiko nagusiaren ezaugarri androzentrikoa (Subirats, 1994), eta erakutsi zuten eskolak eremu pribilegiatu bat izaten jarraitzen zuela emakumeen mendekotasunarekin jarraitzeko, bai irakasleek bai eskolako egiturak eta antolakuntzak sexu-hierarkiak transmitituz jarraitzen baitzuten, modu esplizituan nahiz inplizituan (ezkutuko curriculumaren izena jarri zioten). Orduan, *hezkidetzaren proposamena* planteatu zuten, ikuspegi, eredu eta printzipio pedagogiko abangoardista argiak zituena, munduan behin eta berriz errepikatzen zen eredu sexista gainditzen zutenak, besteak beste: eredu soziokultural patriarkalak errepikatzeari dagokionez, belaunaldi berriei jarrera kritikoa izaten erakustea; hezkuntza-edukietan eta -praktiketan emakumeen bizipenak txertatzea;

ikasgelan erabili ohi den hizkuntza androzentrikoa berrikustea; ikasgelako eremuak eta altzariak antolatzeak modua berrikustea; aukeratzen diren metodo didaktikoak eta hezkuntza-maila desberdinetan hautatzen diren ikasliburuak eta material osagarriak genero-ikuspegitik aztertzea; hezkuntza-komunitatearekin harremanetan jartzeko moduak zalantzan jartzea eta eguneratzea, bai eta norbanakoen eta taldeen jarrera egokiak eta okerrak zehazteko erabiltzen diren irizpideak eta indarkeriazko jarreraren permisibitatea ere, etab.

Hezkuntza, beti, ekintza politiko bat dela jakitun, guk (InteRed) **feminismoa marko politikotzat hartzen duen hezkuntza-eredutzat ulertzen dugu hezkidetzan. Gaur egun, hezkuntzan erabili ohi den sistema androzentrikoa eta heteropatriarkala zalantzan jarri eta deseraikitzen du.** Ikuspegi kritikoa eta norbanakoen nahiz taldeen ahalduztzea sustatzen ditu, botere patriarkalaren egiturak eraldatzea helburu; gatazkaren kudeaketa eta tratu onean oinarritutako harremanak txertatzen ditu, indarkeria matxistak normalizatzearen aurrean; eta desberdintasunak baliatzen eta goraipatzen ditu, gure ikuspegia eta justizia nahiz ekitatea lortzeko bidean aurrera eramaten ditugun borroka komunak aberasteko sormen-indartzat.

Zehazki, lau dimentsio edo lan-ardatz hauetan jartzen dugu arreta:

a. Pertsonen eta planetaren zaintza erdigunean jartzea. Zaintzak, bizitzaren iraupenerako ezinbestekoak izan arren, curriculumetatik baztertu ohi dira; zaintza horiek, hain justu, emakumeen gain utzi dira tradizionalki. **Bizitzaren iraunkortasunera bideratutako zaintzen pedagogia** proposatzen dugu, **ikuspegi ekofeminista batekin**, sez ekoizpenera eta kapital-metaketara bideratua. Egungo zaintzen krisia – bere kate globalak, sexuaren arabera gizarte-antolaketa eta zaintzekin



lotutako zorrak dituenen – salatzen eta eraldatzen duen pedagogia bat da; eskoletan nagusi den eredu androzentrikoaren ikuspegi guztiz desberdina da, elkarren arteko mendekotasuna eta ekomendekotasuna ukatzen duten eta desparekotasunak, pobrezia eta indarkeriak sortzen dituzten arauak, balioak, pentsatzeko moduak eta gizarte-egiturak ez betikotzeko. Justiziaren etika eta zaintzarena batzen ditu hezkuntzan, eta modu baketsuan eta sormenez egiten die aurre, beste interes batzuen gainetik, zaintzak defendatzeak sortzen dituen gatazkei.

b. Identitate-aniztasunaren aberastasuna eraldaketarako eta sormenerako aukera-iturritzat sustatzea eta goraipatzea, heteropatriarkatuak inposatutako identitate hegemonikoak berriz pentsatuz (sexuari, etniari, klaseari, adinari, sexu-orientazio eta -identitateari, eta aniztasun funtzionalari dagozkionak, besteak beste), eta egungo identitate-aniztasunaren aberastasuna balio positibo gisa errespetatuz eta erakutsiz, ez arazo gisa. Horretarako, hezkuntza-eremu eta -testuinguru seguruak eta aniztasunarekin errespetuz jokatzeko dutenak sortu behar dira, hau da, pertsonen, modu esplizituan, aniztasunaren alde egiten duten eremuak, gizarte osoarentzako onura diren aldetik; horrez gain, pertsona guztientzako eskubide- eta aukera-berdintasuna bilatu behar da.

c. Kalitatezko hezkuntza afektibo eta sexuala sustatzea, pentsamendu kritikoa bultzatuko duena, eta pertsonen modu askean eta autonomoan adierazten lagunduko diena, beren gorputzen eta buruen bitartez; hala, haien artean sortzen diren harreman afektibo eta sexualak ongizate-iturri izango dira, ez desparekotasunak eta indarkeriak sortzen dituen mekanismo bat. Horretarako, erantzukidetasuna sustatu behar da zaintzen, afektibitatearen eta sexualitatearen eremuan, neska-mutilek parean dutenaren nahiak errespetatu dituzten, haien emozioak arretaz entzunez eta, bien arteko harreman afektibo eta sexualarekin lotutako erabakiak hartu behar direnean, erantzukidetasunez jokatzuz.

d. Indarkeria matxistak prebenitzea (aurreko puntuen ondorio zuzena), eta edozein indarkeria-motaren aurrean zero tolerantzia izatea, matxismoak eta emakumeen aurkako edozein indarkeria-motak jokabide edo gatazkak konpontzeko eredu onargarritzat zilegitasunik izan ez dezaten, eta bizitzako alderdi guztietan tratatu ona eta ekitatea sustatu daitezkeen.

Indarkeria matxistaren prebentzioan laguntzeko, ardatz hauek izan behar ditu gazteekin egiten den lanak:

“Tradizionalki femeninotzat” jo diren balioak (elkarriketa, goxotasuna, enpatia, zaintzak, etab.) **positibotzat har daitezkeen** laguntzea, eta mutikoen nahiz mutil gazteen artean enpatia-gaitasuna sustatzea, besteak beste, zaintzea balio positibotzat har dezaten.

Neskatoak edo neska gazteak eta mutikoak edo mutil gazteak izateko - hau da, pertsona izateko - **modu anitz** daudela **erakustea**, pertsona bakoitzak esperimendu dezan identitate-aniztasunaren alde ona.



Tratu txar txiki oro tratu txar HANDITZAT ezagutzera ematea, eta ikastetxeetan, **indarkeria-egoeren aurrean, ZERO TOLERANTZIA agertzea.**

- Gakoa: indarkeria-egoeren aurrean, isiltasun konplizeekin amaitzea.

Maskulinitatearen eta indarkeriaren arteko lotura hausteari lehentasuna ematea:

a) Emozioak eta zaintzak erdigunean jarritz.

b) Gizonezkoak biolentoak izan daitezkeen ikuspegia aldatzea eta gizonezkoak zaintzaileak izan daitezkeen ikuspegia zabaltzea.

c) Gizonezko zaintzaileak erreferentetzat indartzea.

Sexu-orientazioen eta -identitateen aniztasuna agerian jartzea eta normalizatzea, haien mundu afektiboak eta eguneroko eginkizunak erakutsiz, gizaki guztiok oinarrian berdinak garela argi geratu dadin. Ez hitz egitea homosexualitateaz modu bereizian, salbuespena izango balitz bezala eta modu esplizituan; hau da, argi uztea beste praktika afektibo eta sexual bat baino ez dela.

Emakumeen artean, funtsezko bi alderdi indartzea: autoestimua eta autonomia. Horrez gain, mugak ezartzen eta beren burua zaintzen ikasteko abileziak indartzea, eta beren identitate propioa mugatzea, bi kontzeptu hauetatik urrunduz: «dena maitasunagatik» eta «dena besteengatik».

Neska-mutilek **beren gorputzekin gozatzen ikasi behar dute, errespetutik** betiere; gai izan behar dute beren sentimenduei izena jartzeko, identifikatzeko eta beldurrik gabe adierazteko. **Sexualitateak ongizatearen eta konfiantzaren sinonimo izan behar du;** izan ere, egun, oraindik, botere-harremanak oso ohikoak dira harreman afektibo eta sexualetan, dagoeneko lortua den berdintasunaren ameskeriaren azpian ezkutatuta.

Jabetzea berdintasunak EZ duela esan nahi tradizioz gizonak izan diren bezalakoak izatea; hau da, nerabeekin berdintasuna zertan eta zertarako lortu nahi den hausnartu behar da, modu kritikoan, **neskek beren beharren eta interesen arabera definitu dezaten mundua,** eta ez besteen zerbitzura dau-den pertsonen ikuspegitik, edota beren desirak inposatutako ikuspegi maskulinoen arabera definituz.



Bikotean erabateko erantzukidetasuna sustatzea: bai etxean bai sentimenduen eta sexuaren arloan; hau da, biek gozatu behar dutela eta prebentzioa bien ardura dela onartu behar da, eta horrela jokatu, bizi garen inguruko bizi-kalitatea handitu dadin. Harreman arriskutsuen ordez, zaintzan oinarritutako harremanak bultzatzea: **“gaiztoei”** eta arriskuari **erostismo-kutsua kentzea** eta zaintzan nahiz tratu onean oinarritutako harremanak **erotizatzea**, ere.

Zaintzan eta elkarrenganako plazeran oinarritutako harreman afektiboak eta sexualak sustatzea, ez arriskuan oinarritutakoak.

Gure gorputz desberdinak balioan jartzea, edertasun-eredu hegemonikoarekin hausten duten emakumeak garen aldetik; horrez gain, gure errealitate pertsonalak eta tokikoak kontuan hartuta, ikuspegi kritiko batetik aztertzea nola baliatzen den sistema emakumeen gorputzetan eta sexualitatean duen kontrolaz, eta hori guztia salerosketarekin, prostituzioarekin, pornografiarekin edo haurduntza subrogatuarekin lotzea.

Patriarkatuak, alde batetik, gizonezkoen arteko nahitaezko korporatibismoa defendatzen du, eta, bestetik, emakumeen artean elkartasun falta sustatzen, bultzatzen eta naturalizatzen du; horregatik, **funtsezkoa da ahizpatasun-nozioa bistaratzea, bultzatzea eta indartzea, emakumeen arteko elkartasunezko itunak indartzea oinarri duena. EZ GARA LEHIAKIDEAK, KIDEAK GARA.**

Beraz, pedagogia feministak eta hezikidetzak ereiten ditugun lehen haziamarko politiko, etiko eta kontzeptual egokia dira, gazteekin batera, genero-desparekotasunak eta desparekotasun horiek eragiten dituzten indarkeria matxistak agerian jartzeko, bai eta maila pertsonalean, harremanetan eta komunitatean desparekotasun horiek eraldatzeko bideari ekiteko ere, emakumeen eta gizonen artean errespetua, lankidetzak eta elkartasuna lehenetsita.

2 Hezkuntza eraldatzailea.

Gure iritziz (InteRed), hezkuntza eraldatzaileak herritartasun global kritikoa, arduratsua eta konprometitua sustatzen du. Hau da, maila pertsonalean zein kolektiboan, tokiko eta munduko errealitatearen eraldaketarekin konprometitutako herritarrak sustatzen ditu, mundu justuagoa, bidezkoagoa, eta

aniztasunarekin eta ingurumenarekin arduratsuagoa dena eraikitzeko, pertsona guztiok libreki eta egoki garatzeko aukera izango dugun mundua. Horrenbestez, ikuspegi hauek geure egitea eta aplikatzea zein garrantzitsua den nabarmentzen du: generoa, giza eskubideak, gizarte-hezkuntza, kulturartekotasuna, ingurumen-jasangarritasuna eta interseksionalitatea.

Hala, irmotasunez defendatzen dugu hezkuntza pertsona ororen oinarritzko eskubidea dela, gizarte zibilak arduraz jokatzeko dakarrena, eta estatuei arlo honetan dituzten betebeharrak betetzeko eskatzen diegu, hots: horretarako behar diren bitartekoak eta baliabideak izatea, hezkuntza denen eskura jartzea inolako diskriminaziorik gabe, onargarria eta kalitatekoa izatea, testuinguru desberdinetara egokitu ahal izatea, parte-hartze aktiboa



sustatzea eta arduratsua izatea. Guztion ondasuntzat hartzen dugu, eta, UNESCOrekin bat eginez, kezka-iturri dugu funtsezko printzipio hau, hezkuntza, babestea, pribatizatu ez dadin, eta, onura ekonomikoak lortzeko asmoz, manipulatatu ez dezaten.

Estatuak hezkuntzarako eskubidea bermatu behar duela defendatzen dugu. Hezkuntza humanista proposatzen dugu, gizakiak duen funtsezko balioa nabarmenduz. Beraz, hezkuntzaren helburua ez da pertsonak gaitzea lan-merkatuan sartzeko, pertsona eta talde ororen gizatasuna ezagutzea eta garatzea baizik; gizatasun horretan, hain zuzen, askatasuna- eta justizia-balioak nabarmentzen dira, betiere ekitatearen ikuspegitik ulertuta. Bat gatoz hezkuntza humanistaren egungo bi paradigma nagusiekin: begirada holistikoa eta begirada integratzailea, pertsonaren erabateko garapena helburu duena, bai bere dimentsio guztietan (korporala, kognitiboa, emozionala eta espirituala), bai eremu guztietan (pertsonala, etikoa, politikoa eta soziala), eta aniztasuna aberastasun-iturritzat hartzen duena, ez diskriminazio-iturritzat. Horregatik, hezkuntza inklusiboaren alde egiten dugu, tokian-tokian nahiz maila globalean, aniztasun biografikoa, etnikoa, kulturala, ekonomikoa, soziala eta erlijiosoa, besteak beste, aitortzen eta balioesten dituen; desberdintasun horiek direla-eta talde batzuen eta besteen arteko botere-harremanetan dauden desparekotasunez jabetzen dena; eta gatazkak modu eraikitzailean konpontzea, indarkeriarik ezaren alde lan egitea eta hainbat testuingurutan bakearen kultura sustatzea proposatzen dituen.

Herritartasun globalerako hezkuntza bultzatzen dugu, hezkuntza-eragile guztien funtzio politikoa nabarmenduz. Prozesu pedagogikoetan, zenbait elementu barne hartzen ditu, hala nola eragin politikoa eta mobilizazioa, jabeturik herritarrek botereari aurre

egin behar izaten diotela, orokorrean merkatuen esku jarri izan baita. Egun, herritartasun globala deskolonizazio-eta despatriarkalizazio-prozesuekin antolatzen da. Gure jarrerari dagokionez, hezkidetzaren alde egindako apustua nabarmentzen dugu, hezkidetzaren politika-eta hezkuntza-jarrera feminista batekin garatzen den pedagogiatzat hartuta. Ez dugu atal honetan azalduko, aurreko atalean garatu baita.

3 Neuropedagogia.

Ereingo dugun hirugarren hazia neuropedagogia da, neurozientzien alorreko beste adar bat, ikaskuntzari dagokionez garunak nola funtzionatzen duen aztertzen duena, hain zuzen; neuropedagogiaren ekarpen nagusietako bat emozioek ikaskuntza-prozesu horietan nola eragiten duten ikertzea da.

Hasteko, adieraziko dugu neurozientzia gizakien nerbio-sistema ikertzen duten zientzien multzo bat dela; garunaren jarduerak jokabidearekin eta ikaskuntzarekin zer lotura duen aztertzen du, bereziki. Horri dagokionez, azken hamarkadetan, aztergai garrantzitsua izan da neurozientziak gizakiaren bizitzan agertzen diren emozioei eman dien funtzioa.

MacLeanek proposatutako garun hirubakarraren ereduak planteatu zuen bilakaeraren arrastoak daudela garun-atal desberdinetan, elkarrekin etengabe harremanetan daudenak. Zehazki, garun-atal hauek bereizi ziren: narrastien garuna (entzefaloaren enborra eta zerebeloa), senezko jokabidearekin eta pentsamenduarekin lotuta dagoena; sistema linbikoa (amigdala, hipotalamoa eta hipokanpoa), emozioekin eta ugaztun izatearekin lotura duena; eta neokortexa (garun-azala), besteak beste, kontzientziaz, arrazoiak eta hizkuntzaz arduratzen dena. Giza garunaren hiru bilakaera-etapa horien arteko bereizketa eta lotura kontuan hartuta uler daiteke



horien aldibereko existentzia, eta horrenbestez, zalantzan jartzen da “gizatasuna” haren osagai arrazionaletik soilik ulertu izana (printzipio kartesiar modernoak).

(...) gure erabakiak eta ekintzak gauzatzeko moduari dagokionez, sentimenduak pentsamendua bezain garrantzitsuak dira, eta askotan garrantzitsuagoak. (...) gehiegitan egin behar izaten diegu aurre dilema postmodernoei pleistozenoko larrialdietara egokitutako errepertorio emozional batekin (Goleman, 2010:24).

Neurozientziaren funtsezko beste planteamenduak giza garunaren oinarri soziala du abiapuntu. Horren adierazgarri dira ispilu-neuronak, zerbait egiten dugunean edo norbaitek zerbait egiten duela ikusten edo imajinatzen dugunean aktibatzen direnak. Neurona horiei esker, besteak imita ditzakegu, edo abileziak lor ditzakegu, besteek nola egiten dituzten begiratzuz. Neurona horiek dira, gainera, enpatiaren erantzuleak, hau da: besteen emozioak eta pentsamenduak, gugan islatzen direnak eta geuretzat hartzen ditugunak. Guk ulertzen dugun moduan, beste pertsonarekin bat etortzea eta harekiko lotura-sentimendua izatea da enpatia; horri esker, perspektiban jar gaitezke, eta beste pertsonengana gerturatu.

Beraz, argi dago, gure bizitzan, gure garunak aldatu egiten direla besteekiko konpromisoari erantzuteko; horrenbestez, gizabanakoak gizarte-sistema handiaqoen parte integraltzat

ikus daitezke. Egiaz, gure identitatearen zatibatkomunitate bat sortzearen eta komunitate horretako kide izateko moduak aurkitzearen mende dago (Salas, 2003:25).

Garunak eboluzionatu egin zuen, besteekiko harremanak antolatu ahal izateko, eta garatuz joan zen, espezie bizidun guztietan garunik handiena izateraino, hain zuzen ere, gai izan ginelako komunitateko bizitza kudeatzeko. Besteekin bizitzeari esker lortu dugu gure garuna hain konplexua izatea, eta, beraz, horregatik hitz egin behar da neuro-bizikidetzari buruz.

Arrazoa eta emozioak, indibidualtasuna eta gizartekoitasuna, beraz, elkarriketan aritzen diren osagaiak dira, hau da, elkarren osagarri dira, eta bizitzan nahiz ikaskuntza-prozesuetan betiko txertatzen dira; are gehiago, elementu horiek dira gizaki egiten gaituen horren oinarria. Baina elementu horiek ez dira airean egoten: iragan egiten dira, gure gorputza zeharkatzen dute, eta ekintzen bitartez adierazten dira. Ez dugu gorputzik, gorputza gara. Horixe da gaiaren funtsa, eta hain zuzen, gorputzean bertan bat egiten dute pentsamenduak, emozioak eta ekintzak; hau da, gorputzean bertan gorputzen eta mobilizatzen da enpatia. Horregatik, norberaren bizipena sustatu behar dugu gure hezkuntza-apustuaren abiapuntutzat, eta enpatiaren garapena, haren funtsatzat.

Neurozientziek eta, bereziki, neuropedagogiak gako pedagogiko eta metodologiko hauek ematen dizkigute, besteak beste:

Garunak, ongi funtzionatzeko eta ikasteko, hauek behar ditu lehenik:

- Atsedena: egunean zehar egindako gauzetatik indarberritzeko eta ikasitakoa



finkatzeko. Lo faltak ondorioak ditu arretan, trebetasun motorretan, gogo-aldartean eta funtzio kognitibo guztietan.

- Dieta orekatua eta askotarikoa: gorputzeko organo konplexuena da, eta energia gehien kontsumitzen duena; elikadura egokiari esker, ikasteko behar diren oinarritzko mantenugaiak lortzen dira.

- Erlaxatzeko eta arnasteko jarduerak, eta jarduera fisikoa: garunera oxigenoa iristen laguntzen dute, estresa gutxitzen dute eta, gai beraren inguruan arretari eusteak eragiten duen ahaleginaren ondoren, atseden hartzen laguntzen dute. Emozioekin lotutako erantzunak moldatzen, autokontrola garatzen eta errendimendu kognitiboa hobetzen ere laguntzen dute.

Gure garuna soziala da; beraz:

- Testuinguruaren kalitateak eragina du, gure garuna ikasteko behar duen egoera onenean egon dadin. Irakasleak eta trebatzaileak ikaskuntza-testuinguruaren parte dira; horregatik, aliatutzat hartu behar dira, ikasle edo pertsona bakoitzaren gaitasunak garatzen laguntzen duten pertsonatzat. Gainera, bai eskolan bai gizarteremu orotan, elkarren arteko loturak, errespetua eta taldearen harmonia landu behar dira.

- Emozioek ikaskuntza-prozesua errazten edo zailtzen dute. Irakasleen, ikasleen eta ikaskideen arteko nahiz horien eta hezkuntza-eragile guztien arteko harreman onak ikaskuntzarako giro bikaina sortzen du, bai maila intelektualean, bai maila emozionalean. Ostera, estres handiak mugatu egiten ditu hipokanpoaren funtzioak; hipokanpoa, hain zuzen, memoriarekin eta ikaskuntzarekin oso lotuta dagoen garun-atala da. Pertsona, talde eta erakunde mehatxatzaileak ikaskuntzaren aurkakoak dira.

Ikaskuntza-prozesuan, garunak faktore hauek behar ditu:

- Sorpresak eta berritasunak, zentzumen-estimuluen aldaketen bitartez: ahots-, bolumen- eta erritmo-aldaketak; koloreen, formen, mugimenduen eta tamainen aldaketa bisualak; ukimen-aldaerak, etab. Aldaketa horiek guztiak interesa eta jakin-mina pizten dute.

- Ikasten denari esanahia eta zentzua aurkitzea: garunak bizitzarako garrantzitsutzat hartzen dituen gaiak jartzen die arreta, eta, hala, errazago bihurtzen dira epe luzerako oroimen. Irakasleak eta trebatzaileak ikasleak ezagutu behar dituzte, ikasitakoaren zentzua aurkitzen eta ikasitakoa beren bizitzarekin nola lotu dezaketen jabetzen laguntzeko.

- Informazioa une desberdinetan errepikatzea eta lotzea, hainbat modutan, eta egoera ezagunekin nahiz eguneroko egoerekin erlazionatzea. Epe luzerako oroimena indartzeko modurik onena informazioa pixkanaka barneratzea da, errepikatzea, aplikatzea eta, horrez gain, norberaren hitzekin adieraztea.

- Bakoitzaren indibidualtasunak errespetatzea eta ulertzea, beren adierazpen-maila handienera irits daitezen; izan ere, pertsona bakoitza bakarra da, konbinazio genetiko eskusiboa du, heldze-denbora propioak, bere bizipenak, memoria, talentuak eta indarrak, errepikaezinak direnak.

4 Herri-hezkuntza.

Paulo Freirek proposatua, herri-hezkuntza Latinoamerikan sortutako eredu pedagogiko alternatiboenetako bat dela esaten da, aitortzen baitu hezkuntzak indarra duela gizarteraldaketarako prozesuak nahiz



zapalduta eta baztertuta dauden kolektiboen zein komunitateen burujabetzarako prozesuak aurrera eramateko.

Herri-hezkuntzaren bitartez, albo batera uzten da banku-hezkuntza, *irakasleen eta ikasleen arteko harreman bertikalak bereizten duen hezkuntza-eredu hegemonikoa, ikaskuntza-prozesua informazio-transferentzia huts bihurtzen duena. Hezkuntza-mota horretan, ikaslearen burua edukiak metatzen diren gune pasibotzat hartzen da, eta horrek agerian uzten du hezkuntza-mota horren harreman eta helburu industrial-kapitalista: laneskua prestatzea eta kualifikatzea, besteen aginduak betetzen jarraitu dezaten (Benítez, González eta Maiques, 2019).*

Freireren proposamenak, oster, harreman dialogikoen baitan eta kasuan kasuko munduarekin lotuta gauzatzen diren hezkuntza-prozesuak pentsatzera, eraikitzea eta gauatzera bultzatzen gaitu. Prozesu horietan, *ikaskuntza ez da ikasten eta errepikatzen modu bakar batean eta bertikalki, hau da, prozesuan esku hartzen duten pertsonen arteko harreman horizontaletatik abiatuz eraikitzen da, eta beren bizi-baldintzak eraldatzea lortzeko eta beren beharrak asetzeko aplikatzen da (Benítez, González eta Maiques, 2019:6);* izan ere, Freirek zion bezala: “eskola ez da pentsatzen, bizi egiten da”.

Herri-hezkuntzak, gure laugarren hazi pedagogikoa denez gero, hiru alderdi nagusitan elikatzen du indarkeria matxisten prebentziorako lana:

- Gazteekin batera, jarrera kritiko bat eraikitzea zapalkuntza-sistemen aurrean, hala nola arrazismoarekin, klasismoarekin, heterosexualitatearekin eta kapitalismoarekin elkarlotutako patriarkatuaren aurrean.

- Hezkuntzaren funtzio eraldatzailea aitortzea, ez ezagutza pilatzeko,

baizik eta generoen artean ekitate-, berdintasun- eta errespetu-balioak sustatzeko bitartekotzat; horretarako, adibidez, gizonezkoen pribilegioak berrikusi behar dira, eta emakumeak ahalduentzeko lan egin behar da, biak ere modu kontziente batean.

- Emantzipaziorako asmo politikoa sustatu behar da, eta gazteak subjektu politiko eragileztat hartu behar dira, beren errealitateak nahiz inguru hurbileneko errealitateak eraldatzeko eta, horrela, gizarte-aldaketan laguntzeko gaitasuna dutenak.





**BERDINTASUNAREN
UNEA DA**

InteRed
hezkuntza eraldatzailearen alde





*“Jendeak ahaztu egingo du zer esan zenuen,
ahaztu egingo du zer egin zenuen, baina ez
du sekula ahaztuko zer sentiarazi zenien”.*

Maya Angelou



||. Metodologia

II. Metodologia

a. Definizioa.

Ikusi genuen pedagogia ikaskuntzaren zuhaitzaren haziarekin lotuta dagoela, eta horrek zentzua eta edukia emango diola hezkuntza-prozesuari. Hazia erein eta sustraiak botatzen dituenan, gure zuhaitza landatzeko prozesuan haziz doa eta bere enborra garatzen du. Metodologiaz ari garenean, zuhaitzaren enborrarekin lotzen dugu, eta horrek forma eta euskarria ematen dio prestakuntza-prozesuari. Hemen galdetzen diogu geure buruari nola transmitituko ditugun landu nahi ditugun edukiak eta balioak.

Erabiliko dugun metodologiak erakutsiko dizkigu ikaskuntza-prozesuan egin beharreko urratsak. Urrats multzo horrek ez du zentzurik; aitzitik, printzipio pedagogikoetatik abiatuta sortzen dira, horrela hazten eta sendotzen baita enborra: sustraieetatik abiatuta.

b. Ikuspegi sozioafektiboa

“Kognizioa eta emozionala, beraz, binomio banaezina da, eta, horren ondorioz egia da ez dagoela arrazoirik emoziorik gabe. Binomio kardinala, irakastea eta ikastea zer den ulertzeko” (Mora, 2013:47).

Aurreko ataletik abiatuta, etika pedagogiko planifikatu horretatik ondorioztatzen den ezaugarri nagusi

bat aurkitzen dugu: **egiten dugunaren eta nola egiten dugunaren artean egon behar duen koherentzia eta elkarrekikotasuna.** Elkarrekikotasun hori adierazteko, bizipen-metodologia garatuko dugu, prestakuntza-zereginaren oinarri gisa. Metodologia hori hiruko bat dagoela ulertzetik abiatzen da (emozioa-ekintza-arrazoia), ikaskuntza-prozesuetan jokoan jartzen dena, arrazoimenaren leku bakarra eta pribilegiatua ezagutzaren iturri, bide eta euskarri gisa mugiaraziz, eta gizarte-lotura berriak ahalbidetzen dituen.

Planteamendu horren bidez, ulertzen dugu beharrezkoa dela informazioaren aldaketa eta bizipen pertsonala bateratzea, jarrera afektiboa ager dadin lortzeko. Ikuspegi sozioafektiboa (David Wolsk eta Rachel Cohen pedagogo daniarreksortutako terminoa) enpatiaren lanetik, bat-etortzearen sentimendutik eta bestearekiko elkarrekikotasunetik abiatzen da, norberaren buruarengan segurtasuna eta konfiantza garatzeko bidea ematen baitu, bai eta hitzeko eta hitzik gabeko komunikazio-trebetasuna garatzeko ere.


Beraz, talde bateko kide diren gizabanako gisa, pertsona bakoitzak egoera enpiriko bat bizi, sentitu, aztertu eta deskribatu behar du, eta gertatu den bizipenaren berri emateko gai izan behar du. Helburua da informazioaren transmisioa eta bizipen pertsonala elkartzea, jarrera afektiboa ager dadin; teoria emozio-esperientzia batetik igarotzea, gogoeta sakonagoak azaleratzeko.

Metodologia sozio-afektiboaren eskema elkarren artean erlazionatzen diren urrats gisa proposatzen da, denak garrantzi berarekin:



1. Bizipen emozionala:

egoera enpiriko batetik abiatzen da, bizipen-esperientzia batetik (jolas bat, simulazio bat, esperimentu bat, irudien analisia, antzezpen bat ...), talde osoak egiten duena. Onena jarduerak berezkotasun dosi bat izatea da, aurrez pentsatutako ideia gaindituko duena.



2. Hausnarketa pertsonala eta kolektiboa:

eztabaidari ekiten zaio, bizi, entzun eta esperimentatu dena lehen pertsonan balioetsiz. Eztabaida orokortu egiten da, kolektibizatuz eta taldeko gainerrako pertsonen iritziekin konektatuz.

4. Testuinguruan jartzea:

bizi ditugun errealitateak aldatzeko zer egin daitekeen planteatzen da. Nola eraldatu indarkeria matxistak testuinguru hurbilean? Zertarako balio digu gazte gisa ikasitakoak? Ekintzarako, konpromiso aktiborako dei hori ezinbestekoa da, frustraziorako hezkuntza saihesteko. Aldaketa posible da.

3. Teorizazioa:

informazioa zabaldu egiten da, errealitatearekin duen lotura ezartzeko (ikerketa-tekniken bidez ere egin daiteke), berehalakotik abiatuta, problematikak eta/edo gatazka globalak barne hartu arte. Teoriarekin, paradigmekin eta lotutako kontzeptu akademikoekin lotzen da. Ziklo sozioafektibo horrek aurreko urrats

bat eta amaierako beste bat ditu beti. Aurreko uneak taldearen aktibazio energetiko eta emozionalarekin du zerikusia, izotza apurtzearekin eta landuko den horretan arreta jartzearekin. Amaierei esker, bizi izandako prozesua bildu egin daiteke (berriz ere, teoria eta emozioak bilduko dituen). Puntu eta jarrai dira edo, unearen arabera, amaierako puntua.


Indarkeria matxistei aurrea hartzeko gazteekin egiten diren prestakuntza-prozesuetan kontuan hartuko dugun funtsezko alderdi bat hau da: **besteekin egiten den prestakuntzak ekintza dialogikoa izan behar du, batez ere, daukagun ezagutza beti bestearekin batera eraiki, berreraiki eta lanean jartzen baita.** Gure prestakuntzetan, gazteek eginkizun protagonista dute beren ezagutzaren eramaile gisa, hezitzaile gisa proposatzen ditugun kontzeptu, gai eta jardueretan parte hartzen duena.

Ekintza bihurtzen den ezagutza gure arrazoia eta, bereziki, gure sentimendua erkatzea lortu duena da. Hori dela eta, hezitzaile gisa bilatzen badugu gazteak indarkeria matxisten prebentzioan eta eraldaketan eragile izatea, beharrezkoa izango da **gazteen arrazoiari eta emozioei eragitea, benetako ikaskuntza lortzeko,** eta, horren bidez, ikasitakoaren eramaile ez ezik, biderkatzaile ere izatea bermatzea; izan ere, zenbat eta elkarriketa eta bizipen handiagoa, orduan eta eragin handiagoa izaten da ikasitakoaren integrazioan.



Hori ondo ulertzeko, ikaste-prozesuetan hiruko bat dagoela ulertu behar da (emozioa – ekintza – arrazoia), alde batera utziz arrazoimenak izan duen leku bakarra eta pribilegiatua, ezagutzaren iturri, bide eta euskarri gisa.

Gure ustez, ez gara soilik gizon eta emakume arrazionalak, pentsatu besterik egiten ez dutenak. Pentsatzen eta sentitzen duten subjektuak gara, eta biek, egiteak eta sentitzeak, egiten duguna bideratzen dute. Horrek esan nahi du espazio pribilegiatua ematen diogula emozioari subjektuaren eraketan, arrazoia edo emozioa joko dikotomiko batean sartu gabe, osagarriak baitira. Ikuspegi sozioafektiboa inspiratzen duen eskema hau da:



Sentitu > Hausnartu > Jardun.

Horregatik, metodologia horri “bizipen-metodologia” ere esaten zaio; izan ere, bizipena dago guztia oinarrian. Hasieran, landu nahi diren kontzeptuak daude, gure kasuan indarkeria matxistekin lotutakoak, eta, ondoren, teorizatu egingo dira eta, azkenik, testuinguruan jarriko dira. Hau da, gazteak galdera hauek egitera bultzatzea: Zertarako balio dit honek bizi naizen testuinguru/errealitateetan? Nola eraman dezaket ikasitakoa nire harremanetara, nire ingurura, nire espazio kolektiboetara?

Ikuspegi sozioafektiboa, beraz, **landu**

nahi den egoera norberaren azalean bizitzea da, esperientzia lehenengo pertsonan izateko, gertatzen ari zaiguna ulertu eta sentitzeko. **Ikaskuntza gazteen esperientziatik, emozioetatik eta bizipenetatik sortzen da**, kontzeptuak modu bateratuan ulertuz eta **ezagutzak denen artean eraikiz**. Horretarako, parte hartzeko prozesu dinamikoa eta aktiboa sortu behar da, prestakuntza jasotzen duen taldean bertan sortua.

C. Bideratzeko gakoak:

Gure zuhaitzaren enborra osatzen duen metodologia sozioafektiboan zehar ibilaldia egin ondoren, garrantzitsua da gazteekin prestakuntza-espazio batean bideratzeko baliagarri izango zaizkigun gako praktiko batzuk eskaintzea. Ikus ditzagun:

Gazteekin bideratze-lanak egiteko gakoak

Badakigu gazteekin prestakuntza-espazio batean bideratze-lanak egitea erronka bizigarria dela hori egiten duenarentzat; izan ere, gazteek berezko kodeak dituzte, beren adinari dagozkion bizipenak eta problematikak, irakasten duenaren interes eta denborak ez bezalakoak, bizitasunaz edo bizigarrien beharra duen energia aktiboaz beterik, erraz nahasten dena deskonektatzeko, aspertzeko edo arreta galtzeko erraztasunarekin. Horregatik, jarraian, eskura izan ditzakegun zenbait gako ikusiko ditugu, tipak balira bezala, bideratze-prozesua taldearen beharrak eta helburuak kontuan hartuta gerta dadin.

- Taldearen energia eta arreta gudan edo proposatzen ari garen horretan mantentzea. Hori gazteak elkartzen ditzuten jarduerekin egin dezakegu, guk jarrera kementsua izanda.





Pablo Picasso institutua. Málaga

- Jokoak eta askotariko dinamikak erabiltzea, beren sormena aztertzeko aukera emango dieten elementu artistikoak dituztenak, pertsona bakoitza eroso senti dadin (bada erraztasun handiagoa duena gorputzarekin, edo pinturarekin, edo musikarekin, edo hitzekin... konektatzeko eta aritzeko). Tresna teknologikoekin duten hurbiltasuna ere kontuan hartu behar da, eta horiei erreferentzia egin edo gure formakuntzetako jardueraren batean sartu.
- Hizkuntza hurbila erabiltzea, gazteek erabiltzen dituzten hitzekin, esaldiekin edo esamoldeekin, haiek errazago ulertzeko eta hizkuntzaren bidez gertutasuna sortzeko. “Haiek bezala hitz egitea” hitz egiten diena taldekide bat

den sentipena sortzen du gazteengan, eta ez beste pertsona bat (pertsona heldu askok hitz egiten diete, baina gazteak ulertu gabe). Alde horretatik, funtsezkoa da, halaber, zerbait azaltzeko orduan, haren esperientzietatik hurbil dauden adibideak erabiltzea.

- Agian, ahalegin, irudimen eta sormen gehien eskatzen duten zereginetako bat hurbilak izatearen eta bideratzaile gisa lidergoa izatearen artean oreka aurkitzea da. Horregatik, beharrezkoa da mugak jartzen jakitea, taldea gidatzea (ez mehatxutik edo beldurretik abiatuta) eta, aldi berean, malguak eta gertukoak izatea. Oso erabilgarria izan daitekeen alderdi bat da gazteak egiten ari garenaz parte hartzen ari direla



Pablo Picasso institutua. Málaga



sentiaraztea, erabakiak hartzean aintzat hartzea (adibidez, atsedeen-ordutegiez, tailerrean elkarbizitzarako oinarrizko akordioez, etab.), gertatzen ari denaren protagonista eta eragile sentiaraztea eta, beraz, haiengan erantzukizuna sustatzea.

- Talde baten barruan prestakuntza sabotatu nahi duten edo taldearen barruan sakabanatze-rola betetzen duten pertsona bat edo batzuk aurkitzen ditugunean, pertsona horiei energia bideratzen eta kasu egiten zaiela senti dezaten jarraitzeko estrategiak erabil ditzakegu, adibidez, tailerraren barruan rolen bat egiteko aukerak eskaintzea (arbelean apunteak hartzea, hitza ematea, denbora kontrolatzea, etab.). Era berean, baliagarria izan daiteke taldea autorregulatzen lagunduko duten aliatuak aurkitzea.

- Funtsezkoa da taldeari buruzko ahalik eta informazio gehien izatea, gure prestakuntzarekin hasi aurretik. Irakasleei eskatu ahal diegu taldeko lidergoei buruzko informazio emateko, pertsonaren baten behar bereziei buruz, erresistentziaren bat egon daitekeela uste duten, norbait jazarpenaren edo bullyingaren bat jasaten ari den, eta irakasle horrek taldea nola gidatzen duen. Irakasleak gazteei buruz duen begiradari esker jakinaren gainean eta alde aurretik “prest” egoteaz gain, informazio horrek estrategiak pentsatzeko, pertsona jakin batzuk zaintzeko eta dinamika aldatzeko aukera ematen digu, bai eta segurtasun handiagoa eman diezaguketen eta taldearen beharrek bat etor daitezkeen beste ekintza batzuk egiteko aukera eman ere.

- Irakasleen figurari dagokionez, garrantzitsua da neurtzen jakitea komenigarria den haiek gure prestakuntzan egon behar duten ala ez. Irakasleak tailerrean egon nahi badu, bertan parte hartzeko eta proposatzen ditugun jarduerak edo jolasak egiteko,

bere burua erakusteko eta gazteengana hurbiltzeko eska diezaiokegu, irekitasun edo konfiantza handiagoa sor dezan. Ez da beti gomendagarria figura hori presente egotea, eraikitzen ari garen espazioari asko eragiten baitio, figura horrekin lotu gaitzakete eta, agian, gazteek gai asko ez dituzte partekatuko, ikastetxean edo haien familietan ondorioak izateko beldurratik. Oso zaila da taldeak konfiantza eta kide izatearen eta zerbait egin ahal izatearen sentimendua sortzea, baldin eta taldearen barruan guregan boterea duen pertsona bat badago. Batzuetan, taldea kohesionatzeko beharrezkoa da irakasleak kanpoan geratzea, non eta rol horizontal batetik parte hartzen ez duen⁴. Era berean, ikasleei galde diezaiekegu irakaslea bertan egotea nahi duten ala ez, figura horrekin duten harremanaren eta sentitzen duten konfiantzaren arabera.

Genero-gaiak bideratzeko gakoak

Gazteekin bideratze-lanak egiteko gako batzuk berikusi genituen, eta, jarraian, genero-gaietan bideratze-lanak egiten ditugunean kontuan hartu beharreko gomendio batzuk ikusiko ditugu, batez ere gure bideratzaile-eginkizunean koherenteak izan gaitezen transmititzen ari garen edukien eta egiten dugunaren artean; hau da, indarkeria matxistak prebenitzeko hezten ari bagara, ezin dugu, inkontzienteki bada ere, botere-harremanik edo indarkeria matxistarik gauzatu taldean edo horiek indartuko dituzten dinamika bultzatu.

- Hizkuntza eta komunikazio inklusiboa erabiltzea, ez bakarrik gizonezkoen enuntziazioa saihestuz orokortzeko, baizik eta femeninoa eta ez-generikoa txertatuz. Hori garrantzitsua da parte hartzen duten guztiek aintzat hartzen dituztela senti dezaten, baita aniztasunarekin ohitzen joan daitezen ere.

- Hitza hartuz parte hartzeko unea



4. Otra Escuelak InteRedeko langileekin egindako tailerrean parte hartutakoa, 2019ko maiatza.

denean, lehen txanda gizonak eskatu arren, emakumeei ematea gomendatzen da, horrek genero bakoitzeko partaidetza-kopurua mugatu baitezake, eta ahotsak orekatzen lagundu; izan ere, normalean, isilenak emakumeenak izaten dira.

- Gure esperientziatik komunikatzeak eta enpatizatzeak hurbiltasuna sortzen du, eta taldearen eta gure artean, bideratzaile gisa, egon daitekeen hierarkia-ideia hausten du. Gure esperientzia eta emozioak ere adieraz ditzakegu, eta ez bakarrik gure gogoetak; hau da, taldearen aurrean geure burua erakutsi eta ireki.

- Oso garrantzitsua da generoen eta orientazio sexualen aniztasuna aitortzea eta balioestea, baina horrek ez du esan nahi taldeko norbaitek bere aniztasunaren aitorten publikoa egin behar duenik.

- Bizipen eta emozio asko emakumeen artean edo gizonen artean bakarrik esperimentatzen ditugu; horregatik, garrantzitsua da berrikustea ea komeni den jarduera edo tailer ez-mistoak



Martxoaren 8ko mobilizazioa. Madril – María Cobos

egitea (gizonen artekoak soilik edo emakumeen artekoak soilik). Adibidez, garrantzitsua da emakumeek jasaten dituzten indarkeriak partekatzea eta ahalduzko modu kolektiboak eta pertsonalak aurkitzea, edo gizonak emozioak adierazteko sentitzen dituzten mugez hitz egitea, gizonak izateagatik

dituzten pribilegioak identifikatzea, eta emakumeen aurkako indarkeriei dagokienez duten erantzukizuna aitortzen saiatzea. Talde ez-mistoetan egindako ikaskuntzei eta gogoetei buruzko lana partekatzea berriz ere egin daiteke talde orokorrean, baina gazteek beren buruak gehiegi azaldu gabe, neskek batez ere.

- Gorputza erabiltzea, hurbiltasun fisikoa edo konfiantzazko ariketak eskatzen dituzten jarduerak egiten ditugunean, funtsezkoa da adostasuna eta mugak jartzeko aukera izatea, gazteak nola sentitzen diren aintzat hartuz, bakoitzaren premiak gainditzen dituen espaziorik ez sortzeko.

Aurrekoa – Bitartean – Ondoren

Otra Escuelak sistematizazio-prozesu bati ekin dio. Prozesu horrek erakundearen esperientzia eta gure prestakuntza jasotzen duten pertsonak jasotako ikaskuntzak biltzen ditu, prestakuntza-prozesu bat gauzatzeko unean kontuan hartu beharreko urratsen, faseen eta alderdien inguruan. Oinarritzko ideia da prestakuntzak gauzatzen ari garen une zehatzetik (tailerraren unea, klasea, jarduerak) harago doazela.

Horrek esan nahi du prestakuntza-prozesuek 3 fase dituztela, eta denak direla garrantzitsuak: aurrekoa, gure prestakuntzaren plangintza egiteko kontuan hartu behar ditugun ekintza eta faktore horiei guztiei dagokiena; bitartekoa, prestakuntzak aurrera egiten duen bitartean behar bezala funtzionatzeko alderdiak; eta ondorengoa, tailerrean gertatutakoa ebaluatzeko, sistematizatzeko eta prozesatzeko aukera ematen duten elementuekin zerikusia duena.

Jarraian eskaintzen dugun eskema hau oso garrantzitsua da hezitzaileen lanari ekiten diogunean; izan ere, prestakuntza-fase bakoitzeko itemak xehatzen ditu, eta, gainera, autoanalisi-erreferente gisa balio digu, gure indarguneak eta zailtasunak identifikatzeko.



AURREKOA

Tailerra planifikatzeko kontuan hartu beharreko elementuak

Plangintza

- Negoziazioa: tailerra eskatzen duen pertsona/erakundearekin hitz egitea. Malgutasuna hasierako proposamena aldatzeko, eta argi izatea zer puntu ez diren negoziagarriak.
- Prestakuntza-prozesuari buruzko narrazio- eta aurrekontu-proiektua prestatzea eta onartzea.
- Hitzarmenak eta kontratuak sinatzea, beharrezkoa denean.
- Landu beharreko gaia(k) definitzea. Asmoa.
- Tailerraren edo prestakuntza-prozesuaren helburua planteatzea.
- Dinamiken eta jolasen helburuak.
- Jarduerak aukeratzea eta bakoitzaren denbora zehaztea (dinamika bakoitzaren eta saio osoaren gutxi gorabeherako iraupena).
- Informazioa biltzeko tresnak diseinatzea: asistentzia-zerrendak, bitakorak, landa-egunkaria, argazkiak, bideoa, errelatoriak, etab.

Talde bideratzailea

- Bideratzailea prestatzea: sormena, dinamizatzeko gaitasunak, taldeak gidatzea.
- Landuko diren kontzeptuak eta erabiliko den metodologia ondo dokumentatzea eta ezagutzea.
- Eginkizunen eta jardueren banaketa bideratzaileen artean.
- Metodologia lan-taldearekin berrikustea edo doitzea.
- Dekoratu: lan egingo dugun tokiko eta taldeko kultura-sinboloak eta -kontentzioak kontuan hartzea, baita giroa ere.
- B plan bat izatea baliabide materialei dagokienez (beam bideoa- zakarrontzia).

Taldearen ezaugarriak

- Talde bideratzailearen eta parte-hartzaileen arteko komunikazio-kanalak sortzea.
- Biztanleria identifikatzea: adinak, generoa, etniak, bizi diren testuingurua, beharrak, itxaropenak eta interesak.
- Parte-hartzaileen kopurua jakitea: 12-30 pertsonako taldeak gomendatzen ditugu.
- Informazio kualitatiboa: taldeko pertsonen arteko harremana; larritasunak edo taldean kontuan hartu beharreko kasuak; taldea eratu berria den edo aritua den.
- Denborak, datak eta espazioak adostea taldearekin.

Materialak

- Formatuak: parte-hartzaileen bertaratze-zerrenda eta saio-bitakorak prestatzea. Baita saioan kartillak edo dokumentu espezifikokoak entregatu behar diren ere.
- Lanerako erabiliko den materiala erosi eta antolatzea: paper-gauzak eta material plastikoa (papera, pinturak, pintzelak, etab.). Paketatu eta banatu tailerrera eramateko.
- Material teknologikoa lortzea eta prestatzea: argazki- eta/edo bideo-kamerak, proiektorea, musika-ekipoa. Ziurtatu funtzionatzen duela eta kargatuta dagoela edo hargune elektrikoak daudela goazen tokian.

Logistika

- Bideratzen duenak kudeatzen badu edo bizilekutik kanpo bidaiatu behar bada:
- Parte-hartzaileen deialdia, gonbidapena eta berrespina egitea.
 - Mokaduak eta elikadura koordinatzea.
 - Espazio egokien erreserba koordinatzea.
 - Parte-hartzaileen joan-etorriak koordinatzea.
 - Bideratzaileentzako aireko edo lurreko txartelak erostea.
 - Bideratzaileentzako ostatu-erreserba egitea.



<i>Espazioa</i>	• Metodologia ludiko-artistikoetarako espazioen ezaugarri orokorrak: oso zabalak, argiztapen eta aireztapen ona, mugi daitezkeen altzariak, erdian zutaberik edo oztoporik gabe, beste jarduera-areto edo -leku batzuetatik independentea (kanpoko zaratak trabarik egin ez dezan eta jardueretan soinua erabili ahal izateko), mugitzeko eta korrika egiteko lurzoru egokia. • Tailerra non egingo den jakitea, haren egokitasuna ziurtatzeko eta jarduera egokiak espazioaren arabera ondo planifikatu ahal izateko. • Espaziora nola iritsi jakitea (helbideak, garraioa), adostutako orduan iristeko. • Aretoa tailerrak eskatzen duenerako egokitzea: altzariak jartzea (aulkiak soilik gomendatzen ditugu, eta zirkuluan jarrita), objektuak eta bestelako altzariak kentzea, apaintzea.
-----------------	---

BITARTEAN	
Metodologia horretatik abiatuta tailerra garatzeko kontuan hartu beharreko elementuak	
<i>Clown jarrera</i>	• Intentzioz parte hartzea, prozesua lehen pertsonan bizitzea, balio eta funtzionatzen duela sinestea. Norbera eredu jarrita azaltzea eta egitea. • Hemen eta orain egotea. • Taldearekin eta parte-hartzaileen artean distantziak saihestea, giro atsegina, konfiantzazkoa eta hurbiltasunekoa sortuz. • Sormena eta konponbiderako gaitasunak aktibatzea. • Malgutasuna: espazioetara, girora, zailtasunetara eta abarretara egokitzea, behar izanez gero planifikatutakoa aldatzeko. • Perfekzioaren ideia alde batera uztea. Zailtasunak eta akatsak ikasteko eta aldatzeko aukera gisa ikustea. • Isiluneen beldur ez zatea.
<i>Taldearekiko harremana</i>	• Parte-hartzaileen energia, jarrera eta beharrak etengabe behatzea, entzutea eta aztertzea. Taldea jardueren, espazioaren eta testuinguruaren arabera irakurtzen ikastea. • Taldearen kontra ez jotzea, baizik eta taldearekin aritzea. • Parte hartzen duten pertsonen erritmo, iritzi eta gaitasunen aniztasuna onartzea. • Parte hartzen ez dutenak ez epaitzea eta presentzia baloratzea. Presentzia hori gorputzekoa, hitzekoa, idatzizkoa eta abar izan daitekeela jakitea. • Asko hitz egiten dutenak eta hitz egiten ez dutenak behatzea, moderatzea eta banatzea. Parte-hartze orekatua bultzatzea.
<i>Giroa sortzea</i>	• Taldearekin egiten diren akordioak argi izatea. Beharrezkoa bada, itzuli haietara. • Konfiantza garatzeko loturak eta espazio seguru bat sortzea, bideratzaileak eta taldea osatzen duten pertsonak nahi dutena adierazteko. • Berdintasuna/horizontaltasuna sustatzea, desberdintasunak errespetatuz. • Harremanak sakontzea, gauza komunak eta bakoitzaren desberdintasunak ezagutzea. • Ikusizko kontaktua eta kontaktu fisikoa bultzatzea. Gorputza eta gorputz-adierazpena aktibatzea. • Erne egotea taldeko giroa hautemateko eta baliatzeko.
<i>Pedagogia eta metodologia</i>	• Joko eta dinamiken asmoa eta helburuak kontuan hartzea (ez da jolastea soilik). • Gogoetak erraztea bizipenetatik abiatuta, eta parte-hartzaileen esku-hartzeak eta teorizazioaren unea elkarri lotzea. • Testuinguruaren azterketa eta teoriara hurbiltzea artearen eta jolasaren bidez egiten ditugu, ez daude bereizita. “Lurreratzeko”, “gauzatzeko” eta kontzeptuak gorputzeko modua da. • Saioa egiteko denbora kontuan hartzea, aurreikusitako jarduerak eta gaiak egiteko. Denborak erabiltzen ikastea, besteak beste, etenaldiak, aurkezpenak eta amaierak, azalpenak eta abar.



	• Era berean, agenda eta plangintza berrikustea, beharrezkoa bada aldatzeko. • Hainbat teknika ludiko eta artistiko erabiltzea, esperientzia sortzaileak zabaltzeko, trebetasunak esnatu eta indartzeko eta, formatu eta hizkuntza desberdinetatik abiatuta, guztion adierazpena eta parte-hartzea bultzatzeko. • Materialak ongi erabiltzea eta zaintzea.
<i>Boterearen erabilera eta mobilizazioa</i>	• Bideratzaile gisa dudaren botere- eta eragin-mailaz ohartzea, nire identitateen eta gure lanaren xede diren pertsonen eta taldeen identitateen arabera. • Ikaskuntza kolektibizatzea: denok dakigu; ezagutzaren eraikuntza kolektiboa; barnetik kanporantz; mota guztietako jakintzak balioestea. • Erabakiak adostasunez hartzea eta denek parte hartzea bultzatzea. • Bizikidetzari eta funtzionamenduari buruzko akordioak denon artean ezartzea. • Bideratzaile gisa zer ahulezia eta indargune ditudan jakitea. • Behar denean lider izaten jakitea eta, aldi berean, taldearen edo egoeraren iritzi nagusiari noiz jarraitu behar diodan jakitea. • Gatazka konpontzeko trebetasunak izatea. Gatazkaren ikuspegi positiboa argi izatea. • Hezitzaile gisa senti dezakegun frustrazioa eta porrotaren eta barregarri geratzaren beldurra lantzea. • Bideratzaileen arteko etengabeko komunikazioa. Ezarritako eginkizunak eta jardueren banaketa betetzea, eta, behar izanez gero, aldatzeko malgutasuna izatea.
<i>Komunikazioa</i>	• Komunikazio asertiboa eta indarkeriarik gabekoa. • Hizkuntza-jarraibideak: soiltasuna eta argitasuna; ulertzen den ahotsa, lasaia; hizkuntza taldearen testuinguruaren eta ezaugarrien arabera erabiltzea; ahotsa modulatzeko. • Gogoratu komunikazioaren % 70 hitzik gabeko hizkuntza dela, eta % 30 hitzezko hizkuntza. • Ikasleen testuinguruaren errealitateak sartzea. • Agertoki espezifikoak sortzea irudimena erabiliz ("Amazonasen gaude..."). Jarduerak egiteko jarraibide argiak ematea.
<i>Emozioak</i>	• Emozioen zentralitatea onartzea, norberarenak eta besteenak ezagutzen eta bereizten ikastea (gorputzaren seinaleak irakurtzea). • Taldeko pertsonen emozioen adierazpena erraztea, tokia ematea eta laguntzea: • Norbaitek tristura adierazten badu, negarraren bidez ateratzen lagundu diezaiokegu, gelditzeko edo egoera emozionala aldatzeko presiorik egin gabe, eta taldean leku bat eman. Emozio horri isiltasunetik eta presentziaz eustea sendagarria izan daiteke. • Ikasleren batek indarkeria jasan duela uste badu, eremu pribatu bat eskaini ahal izango diogu, taldetik aparte, modu enpatikoan entzuteko eta sail bereziren batera bidali behar dugun ebaluatzeko, betiere ikaslearen beharrak kontuan hartuta eta harekin batera aukerak ebaluatuta. • Emozioak adierazteko espazioak irekitzea eta ixtea. • Barre egitea: barreak sendatu eta lasaitu egiten du. Barregarri geratzaren beldurra gainditzea. • Espazio horiek terapeutikoak direla jakitea, terapia izan gabe, hain zuzen, deskarga eta laguntza emozionalagatik. • Isiltasun-guneak balioestea eta lekua ematea: barruan gertatzen zaidanarekin harremanetan jartzeko balio dute. • Enpatia sustatzea, istorio pertsonalen bidez eta oroimen pertsonalaren eta kolektiboaren uneak partekatuz. • Nork bere burua zaintzeko praktikak sustatzea, neure buruarekin hasita.



GERO	
Tailerrean gertatutakoa ebaluatzen, sistematizatzen eta prozesatzen elementuak	
<i>Lekua entregatzea</i>	• Erabilitako lekua antolatzea eta garbitzea. • Materialak biltzea eta antolatzea.
<i>Jarraipena</i>	• Materialak bidaltzea: idatzizko dokumentuak, pdf, power point aurkezpenak, argazkiak, jardueren fitxak. • Kasu pertsonalak: banakako kasuak identifikatzea eta laguntzea; komunikazioarekin jarraitzea; beharrezkoa denean, laguntza psikosozialaren eta beste erakunde edo espazio batzuen laguntza bilatzea aliantzen bidez. • Edukia: zer gai sakondu behar diren; zer gai berri proposatuko ditudan; zer laguntza behar ditudan, idatzizkoak, ikus-entzunezkoak, etab. • Jarduerak jarraitzeak zentzua ote duen aztertzea. • Hurrengo topaketak: egunak eta orduetegiak. • Parte-hartzaileen zalantzak argitzea posta elektronikoz, telefonoz.
<i>Topaketaren ebaluazioa, atzeraelikatzea eta analisisa (banakakoa nahiz bideratze-taldekoa)</i>	• Parte-hartzaileen oharrak deialdiari, metodologiari, parte-hartzeari, edukiei, logistikari, helburuei, erabilitako materialei, espazioari eta abarri buruz. Hauen inguruan: “zer funtzionatu duen, zer hobetu daitekeen; zerk ez duen funtzionatu, zer aldatu behar den”. • Maila pertsonalean: nola sentitu naizen, zer hobetu dezakedan, zer indargune ditudan. • Talde bideratzailea: nola sentitu garen, zer hobetu dezakegun, zer indargune ditugun. Ez denboren eta jardueren aurretiazko plangintza bete dugun. Helburuen betetze-maila berrikustea. • Parte-hartzaileen datuak biltzea eta kontaktu-base batean gordetzea.
<i>Autozainketa</i>	• Autoebaluazioa: azterketa emozionala eta nork bere burua zaintzeko neurriak. • Tailerrean parte hartutakoek barrua husteko eta deskargatzeko gunea eta praktikak (bakarka nahiz taldeka). • Taldeak askatzea.
<i>Sistematizazioa</i>	• Jarraipen-bitakorak eta ebaluazio-fitxak. Bildutako informazioa egoki erabiltzea. • Proiektuaren txosten narratiboa eta finantzarioa (beharrezkoa denean) egitea. • Argazkien erregistroa antolatzea. • Asistentzien, joan-etorrien eta abarren formatuak biltzea eta ordenatzea. • Egindako arte- eta sorkuntza-produktuen sozializazioa. • Kontabilitate- eta finantza-taldeari fakturak ematea.





*“Nirekin jolasten ari naiz, munduaren ari-
marekin ari naiz jolasean. Nire izatearen
eta munduaren espirituaren arteko elkarri-
zketa naiz. Neure burua aldatzen dut,
mundua aldatzen dut.”*

Gloria Anzaldúa



|||● **Baliabide
didaktikoak**

III. Baliabide didaktikoak

a. Definizioa.

Azkenik, zuhaitzaren metaforaren barruan, adarrak daude. Baliabide didaktikoek erabiltzen diren teknika egokiak aipatzen dituzte, definitutako hezkuntza-ekintzarekin erlazionatzen dira, eta galdera honi erantzuten diote: “Zerekin” garatuko dugu hezkuntzalana? Adar asko, askotarikoak, hainbat forma eta tamainatakoak, hostodunak edo hostorik gabeak dauden bezala, guk ere gure pedagogia eta metodologiaren zerbitzura jarriko ditugun jarduera eta dinamiken unibertsoa aurki dezakegu.

Teoria pedagogikoa eta irakaskuntza-teknikak artikulatzearen ardura duen diziplina didaktika da; hezkuntza-praktikan printzipio pedagogikoak eta fase metodologikoak gauatzeko bide ematen duen kate-maila da.

Jarduerak eta dinamikak aukeratzeko, oinarri pedagogikoak (hazia) eta metodologia sozioafektiboa (enborra) hartuko dira kontuan. Ondorioz, baliabide didaktikoek edo zuhaitzaren adarrek osagai ludiko eta artistikoa dute, jolas, dinamika eta era guztietako ariketetan garatuak, eta espazio formalak aberastu eta sormenezko bihurtzeaz gain, kontzeptuak oroimenean finkatzen laguntzen digute, gorputzetik eta emozioetatik igarotzen baitira, arrasto handi bat utzita. Izan ere, txikitatik denok ikasten dugu, jolasaren bidez, hitz egiten, gizartean egoten eta arauak eta balioak garatzen.

b. Alndarkeria matxistei aurrea hartzeko jarduerak.

Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesua errazteko, ondoren, zenbait baliabide didaktiko (adarrak) partekatuko ditugu, indarkeria matxistei aurrea hartzeko gazteekin egiten den hezkuntzalanerako baliagarriak izan daitezkeenak. Adar horiek giltzarritzat jotzen ditugun 4 ardatzekin lotuta daude: taldeak sortzea eta indartzea, maskulinitateen eta haien pribilegioen inguruko gogoetalarana, emakumeen ahalduztzean aurrera egitea, eta era guztietako indarkeriak identifikatzea eta deuseztatzea.

Ardatz horiek inspirazio-iturri dira gure hezkuntza-prozesuetako baliabide didaktikoak aukeratzeko eta gauatzeko unean. Jarraian, ardatz bakoitzaren jarduera batzuk partekatuko ditugu. Hala ere, nahiko genuke hezitzaile bakoitzak bere ezagutza eta bere sormena aktibatzea, eta erabil ditzakeen baliabide didaktiko guztiak hautatzea, asmatzea edo aukeratzeko, bideratuko duen taldearen eta prestakuntzarako identifikatuko dituen gai edo beharren arabera.

1 Probentzioa

Gure adar edo baliabide didaktikoen lehen ardatza prestakuntza jasoko duen gazteen taldea sortzea eta indartzea da. Hezkuntza-prozesu ororen abiapuntutzat jotzen




dugu hori; izan ere, taldea osatuta eta indartuta, indarkeria matxistei aurrea hartzeko ikaskuntza- eta irakaskuntza-aukerak askoz aberasgarriagoak izango dira.

- Taldea sortzea estimu- eta konfiantza-giroan.
- Parte-hartzaileentartean komunikazioa bultzatzea.
- Erabakiak adostasunez hartzen laguntzea.
- Lankidetzaren lantzea.

Bakerako Hezkuntzaren alorrean, probentzio terminoa erabiltzen da (John Burton ikertzaileak sortu zuen, 1990) gatazkak positiboki eraldatzeko tresnak –taldeari eta taldea osatzen duten pertsonari– emateko beharra aipatzeko. Probentzioaren bidez, helburu hauek lortu nahi ditugu (Maiques eta Correal, 2015):

Gure prestakuntzetan, probentzio-lana bi fase nagusitan banatzen da: sortzeko eta kohesioa (taldea izatea); eta taldearen funtzionamendua (taldearen zeregina). Probentzioa urratsez urrats egiten dugun bidea da, eskailera bat igo nahi bagenu bezala, eskailera-maila bakoitza lantzea ezinbestekoa izango da hurrengoan aurrera egiteko.



JARDUERAK ⁵		
Probentzioa		
Taldeak sortzea	Aurkezpena	• Mugimendu eskusiboa • Izena esan eta lekuz aldatu • Anana, marakuia
	Ezagutza	• Hitzordu espresa
	Konfiantza	• Burbuilak
	Estimua	• Auto-garbitzailea/Bikotekako masajea
Indartzea	Komunikazioa	• Entzute aktiboa
	Adostasuna	• Banku batean ordenatzea / Enbor bat ibaian
	Lankidetzaren lantzea	• Aulki zonbia



5. Jarduera horietako batzuk Otra Escuela bideratutako tailerrean egin ziren (2019ko maiatza). Gidaren amaieran, jardueren fitxa zehatzak, ardatzetan antolatuta, jarri ditugu.

2 Indarkeriak

Taldearen kohesioa eta indartzea probentzioaren bidez landu ondoren, eta, zehazki, konfiantza-, afektu-, elkartasun- eta errespetu-gune bat sortuta, bigarren ardatzerantz egin dezakegu aurrera, baliabide didaktikoen barruan. Ardatz horretan indarkeria matxistak identifikatzeko, prebenitzeko eta lantzeko ariketak egingo ditugu.

INDARKERIAK
Jarduerak
• Hitzen stop • ... (r)en argazkia (Irudi-antzerkia lantzen) • Makinak

3 Maskulinitateak

Gure adarren edo baliabide didaktikoen hirugarren ardatza maskulinitatei buruz egindako lana da, eta taldeko gizonaekin espezifiki egingo dugu. Helburua da genero-rolak ulertzeko jarduerak eta dinamika egitea, batez ere gizon izateak eta maskulinitate hegemonikoa gauzatzeak zer esan nahi duen, gizonentzat nagusitasunezko eta pribilegiozko posizioa bermatzen baitu, eta emakumeentzat menderakuntza.

Maskulinitateari buruzko lan sakon, gogoetatsu eta eraldatzailea egiteak esan nahi du esploratzea zer maskulinitate mota eraikitzen ari diren gizon gazteak, zer erreferente dituzten, zer jarrera eta rol dituzten, eta maskulinitate horiek nola erreproduzitzen duten emakumeen gaineko menderakuntza, kontrola eta indarkeria. Horrez gain, gizonen artean aldaketa beharrezkoa dela identifikatzeko espazioak bilatuko

ditugu, indarkeriei aurrea hartzeko eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasunean aurrera egiteko faktore erabakigarri gisa.

MASKULINITATEAK
Jarduerak
• Genero-maskarak • Maskulinitate hegemonikoaren mapa • Gazteriaren collagea

4 Emakumeen ahalduntzea

Gure adarren hirugarren ardatzean gazteekin beren maskulinitateari buruz soilik lan egiten dugun bezala, orain neskeekin lan espezifiko egitea proposatzen dugu. Gure helburua izango da emakumeen ahalduntzea sustatzea, aukera emango baitie genero-rolak berrikusteko, emakume gazteak izateagatik bizi edo ezagutzen dituzten indarkerien istorioak identifikatzeko eta partekatzeko, haien autoestimua eta konfiantza banaka eta taldeka indartzeko eta, horrela, hausnarketak eta estrategiak sortu ahal izatea mugak jartzeko, nor bere burua ezagutzeko, bere burua zaintzeko eta indarkeria matxistak prebenitzeko. Gorputz-teknikak, antzerkikoak eta rol-jokoak barne hartzen dituzten ariketak proposatzen ditugu.

AHALDUNTZEA
Jarduerak
• Emakumearen collagea • Esku hauekin • Nire mugak arakatzen





Pablo Picasso institutua. Málaga





*“Hezkuntza da mundua aldatzeko erabil
dezakezun armarik boteretsuena.”*

Nelson Mandela



IV. Indarkeriarik gabeko eraldaketaren fruituak

IV. Indarkeriarik gabeko eraldaketaren fruituak

Fruituak ikaskuntza-prozesua berrabiarazi eta haratago eramaten duen elementu gisa agertzen dira; izan ere, fruitu batek, berez, jaio zen zuhaitzaren hazi bera darama. Beraz, hezkuntza sinbolikoki ulertzeko modu bat da, ezagutzak biderkatzeko eta agentzia eta subjektibotasun politikoak gauzatzeko prozesu eta espazio gisa. Fruituekin eta fruituetan, zirkulu pedagogikoa ixten da, eta, aldi berean, paradoxikoki, prozesu osoa berriro hasten da, amaitzen ez den espiral gisa. Hemen dugu, orduan, hezkuntzaren eta aktibismoaren arteko lotura.

Hezkuntzaren oinarri soziala nabarmentzean, ikaskuntza **ezagutza eraikitzen duen prozesu dinamikotzat eta dialogikotzat** hartzen da, **gizarte-erlaketak bilatzen duena horizontaltasunetik eta zapalkuntzen aurkako borrokatik, ikasleen eta hezitzaileen kontzientziaziotik eta ekintzatik abiatuta**. Hala, indarkeria matxistei aurrea hartzeko proposatzen den ikaskuntza ez da modu unibokoan eta bertikalean ikasten eta errepikatzen, baizik eta inplikaturako gazteen loturaren bidez eraikitzen da, eta haien existentzia-baldintzak eraldatzeko eta haien beharrak asetzeko erabiltzen da. Ikaskuntzaren nozioa zabaltzen dugu; izan ere, ez da soilik pentsatzen eta esaten den zerbait, abiapuntua **elkarrizketa eta ekintza baita, eta horrela egiten denean, bizitza eraldatzen du**.

Ildo horretatik, indarkeria matxistei aurrea hartzeko hezkuntza-prozesuetan, gazteak aldatzea eta beren bizitza eraldatzea nahi dugu, beren buruarekiko sentsibilizaziotik abiatuta, aldaketaren aldeko ekintzaileak izan daitezen; hau da, estrategiak sortzea, **ikasitakoa**

bere espazio pertsonaletan eta kolektiboetan errepikatzeko.

Honaino, gure hezkuntza-prozesuan nahiko lortuta izango dugugure helburua, haziaren (oinarri pedagogikoak), enborraren (metodologia) eta adarren (baliabide didaktikoak) informazio guztia gazteen gorputz, emozio eta hausnarketatik igaro baita. Orain, hezitzaile gisa, agentzia politiko horien eta beren lidergoen aktibazioa sustatzea eta bideratzea izango da gure lana.

Horretarako, prestakuntza-prozesu osoan kontuan hartzeko gako batzuk proposatzen ditugu, eta gomendatzen dugu, gure hezkuntza-prozesuen plangintzan, estrategia propioak eta kolektiboak bilatzen lagunduko duten une espezifikoak bideratzea, gazteek aurkitu ditzaten beren espazioetan eragiteko modu motibagarrienak:

- Ikasleen autonomia sustatzea eta gaitasunak indartzea, hezitzaileok haien prozesuan lagundu gabe, ikasleek berek beren kabuz ikasitakoa errepikatzeo konfiantza eta tresnak izan ditzaten. Fruitua ere, denbora-tarte batean jaio, hazi eta sendotzen den bitartean, arbolarena da, baina heltzen denean, askatu egiten da, eta berekin eta bere erara daramatza informazio guztia, mantenugaiak eta zuhaitzaren memoria.
- Banakako eta taldeko espazioak eskaintzea, gazteek zer arazotan eragin dezaketen identifika dezaten, beren behar eta interesen arabera.

Horretarako, beren bizitzako hainbat esparru zehaztu ditzakegu (adibidez, institutua, familia, auzoa, laguntaldea, etab.), non haiek indarkeria matxistak daudela identifikatzen duten



eta indarkeria horien analisia egin dezaketen: zer indarkeria mota ikusten dugun, nork egiten dituen indarkeria horiek, zer dinamikak indartzen dituzten... Esku hartu nahi dugun problematikari buruzko beharrezko informazio guztia izatea lehen urratsa da agentzia politikoa eta gazteen lidergoa aktibatze; izan ere, horri esker, beren errealitatearen jakitun izan daitezke, eta errealitatearekin axolagabe ez izan.

- Ikasleek argi dutenean zein problematikari eragin behar dioten, funtsezkoa izango da espazio bat eskaintzea, aldatzeko moduak, ekintzak edo estrategiak pentsatu eta sor ditzaten, argudiatuz edo ikasitakoa beren inguruneetara eramanez. Dokumentu honetan behin baino gehiagotan aipatu dugun bezala, egingo ditugun hezkuntza-prozesu horien helburua da ikasten dutenek ez ikastea ezagutza metatzeko, baizik eta bizitzarako, ahalduzko eta ikasitakoarekin zerbait egiteko. Horretarako, ikasleak gonbida daitezke zer ekintza egin nahi dituzten zehaztera (ekintzak ikasleen problematikak eta interesak bezain askotarikoak dira): sentsibilizazio-kanpainak, kolektibo bat sortu, performance bat egin, horma-irudi bat margotu eta abar).

- Funtsezkoa da lidergoak eta agentzia

politikoak abian jartzean, gazteek identifikatzea zer baliabide dituzten beren ekintza edo estrategiaren zerbitzura, zer aliantza egin ditzaketen beren lanean lagundu dezaketen pertsonekin eta zer zailtasun aurki ditzaketen horiek gainditzeko (berezkoak eta testuingurukoak).

Tailerrean parte hartutako baten hitzetan, hezitzaile garen aldetik, *nahi dugu gazteak gai izatea antolatzeko, zer nahi duten pentsatu eta erabakitze, zer gaitan prestatu behar diren, zer espaziotan esku hartu nahi duten*. Azken finean, aldaketaren aldeko aktibista izaten hastea. Askotan, aktibista izatea hau dela pentsatzen dugu: *manifestatzioetan bozgorailu batekin ateratzea; agian, leku horietan egon nahi duten neskak eta mutilak daude, baina egon daitezke beste batzuk ere, ekintzaile izan nahi dutenak eta gauzak adierazteko modu hori nahi ez dutenak*. Badugu aktibista-estereotipo bat, denok gara beharrezkoak, baina denok ez dugu gauza bera egin behar. Beharrezkoa da aukera-sorta irekitzea⁶.

Horrela, bada, gure hezkuntza-prozesuen barruan, bizipen pertsonalean eta kolektiboan sortzen diren gogoeta guztiak biltzeko lekua emango dugu, dinamikekin, azalpen teorikoekin, ikasle bakoitzak galderei erantzun ahal izateko:



Malagako gazteen mobilizazioa. Indarkeriak

6. Otra Escuelak bideratutako tailerrean parte hartutakoa. 2019ko maiatza.



Ikasgelan egiten ari garen hori guztia nora eraman eta biderkatu dezaket? Nola egin nahi dut? Gogoan izanda beti *aaktibismoa gauza txikietan dagoela egunerokoan, gustuko duzun eraldaketa batekin lotzen zaituela, interesatzen zaizun eraldaketa bat dela, bihotzarekin konektatzen zaituela, gorputzetik pasatzen dela*⁷.

Puntu honetan, ekintza kritikoa eta eraldatzailea azpimarratzea interesatzen zaigu, ikaskuntzaren helburua eta indarkeriarik ezaren oinarria den aldetik. Indarkeriarik eza kontzeptuaren oinarrian, indarkerien eta pasibotasunaren artean sozialki eraiki den dikotomiaren aurkako konpromiso aktibo bat dago, munduaren eta bidegabekeriaren aurrean gure jarrera soil-soilik bortitza izatea edo pasiboa izatea balitz bezala. Indarkeriarik ezak indarkeriak eta haiek legitimatzen dituzten pasibotasunari eta axolagabetasunari heldu nahi die. Indarkeriarik eza hautabide faltsu eta indibidualizatzaile (indarkeriak eta pasibotasuna) horren alternatiba bat da, eta haren oinarri etiko-politikoa pertsonen autonomiaren onarpenetik, ekintza kolektibotik, desobedientziatik eta erresistentzia zibiletik abiatzen da, bide aktibo eta, aldi berean, baketsuak baitira, gizarte-egoerak eta gizarte baten lege bidegabe edo zuzengabeak eraldatzeko (1973).

Funtsezkoa da termino hori, hezitzaile garen aldetik, gazteak beren agentzia politikoak sormenetik aktibatzekeo sustatzea bilatzen ari garenean, inguruan ikusten dituzten indarkeria matxistekiko pasibotasuna eta axolagabetasuna gainditzeko. Indarkeriarik ezak egiturazko aldaketa sozial eta kulturalak sortzea bilatzen du, helburuen eta horiek lortzeko bitartekoen arteko koherentziatik abiatuta. Lehen deskribatutako pedagogia-printzipioekin (haziekin) bat dator honetan: hezkuntzaren ardatza ezagutza batera eraikitzea da, “humanizatzeko”

eta gizartea eraldatzeko, hezitzaileen eta ikasleen arteko autoritarismoaren eta bertikaltasunaren aurka eginez. Indarkeriarik eza, horrela ulertuta, “bidegabekeriaren aurka borrokatzeko modu bat da, borroka horrek bidegabekeria hori sortu edo babesten duen pertsonari ezbeharririk edo kalterik eragin gabe” (Jares, 1999:71).

Ondorioz, gazteen agentzia eta lidergoak ahalbidetuko dituen hezkuntza-prozesu baten alde egiten dugu, indarkeria matxistei aurrea hartzeko eta gatazkak indarkeriarik gabe eta modu sortzailean eraldatzeko modu berri bat erabiliz:

- Ekintzarekin lotzen duen bizitzeko eta sentitzeko modu bat.
- Lankidetzaren bidez gizartean harremanak izateko modu bat.
- Enpatiaren bidez hunkitzeko modu bat.
- Humanizatzeko modu bat, beldurraren, kontrolaren, indarkeriaren eta lehiaren egungo kulturari aurre egiteko eta hura eraldatzeko modu bat den aldetik.



4 JARDUEREN FITXAK

a. Probentzioa.

1. Mugimendu eskusiboa

TIPOLOGIA: Aurkezpen-jokoa

HELBURUAK:

- Lankideen arteko aurkezpena
- Izenak ikastea
- Elkar ezagutzen hastea.

PARTE-HARTZAILEAK: 6 urtetik gorako 8-40 pertsona.

DENBORA: 10 minutu

MATERIALAK: Bat ere ez

JARDUERAREN GARAPENA: TPertsona guztiek zirkulu bat osatuko dute, bakoitzak bere izena adieraziko du eta mugimendu eskusibo eta original bat egingo du. Gainerako taldekideek, aldi berean, pertsona horren izena eta mugimendua errepikatuko dute. Denek txandaka hori egin ondoren, proposa daiteke pertsona bat erdira ateratzea eta taldeko norbaiten izena esatea; aipatutako pertsonak azkar egin behar du haren mugimendua, eta haren izena esan (erdira atera den pertsonarena), segundo gutxiren buruan egiten ez badu galdu egingo du, eta, orduan, erdira atera behar du, hor zegoen lankidea ordezkatzuz.

GOGOETA: (jolasaren eta landutako gaiaren arteko erlazioa): Azkenean, gogoratzen dituzten izen guztiak esateko eska dakieke bizpahiru pertsonari, izenak zenbateraino memorizatu diren egiaztatzeko.

Gorputz-adierazpena eta lotsa galtzea ere lantzen dira jarduera honetan. Jarduera beste behin errepikatzen bada, taldearen aurrerapena ebalua daiteke zentzu horretan (askeago dagoen, mugimenduak edo keinuak errazago ateratzen diren edo konplexuagoak eta/edo sortzaileagoak diren, etab.)

ORIENTABIDEAK: (kontuan hartu beharreko alderdiak eta/edo aldaerak): Jokoa apur bat alda daiteke, izenarekin batera doan keinu eskusiboa egin ordez, pertsona bakoitzari gustatzen zaion eta bere izenaren lehen letraz hasten den zerbait esanez. Adibidez: “Maria dut izena, eta musika gustatzen zait; Jaime dut izena, eta jolastea gustatzen zait”. Nire izena eta daukadan amets bat esanez ere egin daiteke, egin nahiko nukeen zerbait eta abar.

2. Aipatu eta lekuz aldatu

TIPOLOGIA: aurkezpen-jolasa

HELBURUAK:

- Izenak ikasi
- Banakoen eta taldearen energia mobilizatzea
- Pertsona bakoitzaren kontzentrazioa indartzea, eta hemen eta orain egotea.
- Barrearen bidez konfiantza sortzea.

PARTE-HARTZAILEAK: 10 urtetik gorako 10-30 lagun.

DENBORA: 15 minutu.

MATERIALAK: Bat ere ez

JARDUERAREN GARAPENA: Taldeari zirkuluan antolatzeke eskatuko zaio. Bideratzaileak, hasteko, zirkuluko beste pertsona batekin kontaktu bisuala ezarriko du, haren izena esan eta eta



pertsona hori dagoen lekura joango da. Izena ahoskatuko da ikusizko kontaktua egiten den eta aipatutako pertsonarengana mugitzen den aldi berean. Pertsona hori hautatutako lekura iritsi baino lehen, aipatutako pertsonak zirkuluko beste pertsona baten izena esan behar du, harekin kontaktu bisuala ezarri behar du, eta pertsona hori dagoen lekura mugitu behar du. Jarduerak etengabea izan behar du, etenik gabekoa.

GOGOETA: Kostatu egiten zait besteen izenak buruz ikastea? Zer sentitzen dut berehala aipatzen ez nautenean eta beste batzuk bai? Zergatik aipatu naute askotan edo ia inoiz?

ORIENTABIDEAK / IRUZKINAK:

Garrantzitsua da jardueraren etengabeko erritmoa bultzatzea. Hori lortzen denean, bi, hiru eta gehienez ere lau lerro batera egiten dira; aldi berean, lau pertsona mugituz egon behar dute, izen ezberdina aipatuz. Jardueraren aldaketa batean, pertsona bat zonbi bat bezala mugituko da (mugimendu motelak eta eskuak luzatuta) eta zirkuluan dagoen beste pertsona batengana joango da. Argi geratu behar du norengana doan. Zonbiak aukeratutako pertsonak kontaktu bisuala egingo du zirkuluko beste pertsona batekin, eta hark aipatu egingo du. Bere izena entzutean, pertsona hori zonbi bihurtuko da, bere lekua utziko du zirkuluan eta bere izena aipatu duen pertsonarengana joango da,

eta aurreko zonbiak zonbi berriaren lekua hartuko du. Orain, aipatu duen pertsonak jarduera errepikatu eta zirkuluko beste pertsona batekin kontaktu bisuala egingo du eta bere izena aipatzen dutenean zonbi bihurtuko da.

JARDUERAREN GARAPENA: Jarduera bideratzen duenak adieraziko du anana edo maracuya jolasa egingo dutela, taldekideek pertsona guztien izenak ikasi dituzten jakiteko. Taldekide bakoitzaren eskuinaldean dagoena anana izango da, eta ezkerraldean dagoena maracuya izango da. Taldeak zirkulu bat osatuko du, eta norbaiti aurrera joateko eskatuko zaio, zirkuluaren erdira. Pertsona hori beste pertsona baten aurrean kokatuko da, haren begietara begira, eta anana edo maracuya esango du, eta parean duen pertsonak, ahalik eta azkarren, eskuinaldean edo ezkerrean duen kidearen izena esango du (dagokionaren arabera). Pertsona horrek asmatzen badu, bere lekuan geratuko da; bestela, erdian dagoena ordezkatzeko du. Jarduera behin baino gehiagotan errepikatu egingo da, eta ezinbestekoa da beti norbait egotea zirkuluaren erdian.

GOGOETA: Bideratzen duen pertsonak nabarmenduko du garrantzitsua dela parte-hartzaileen izenak ikastea eta elkarri deitzeko erabiltzea. Izen berezia pertsona gisa identifikatzen gaituen lehen hitza da, familiak aukeratzen du eta identifikazio soziala ahalbidetzen du.

3. Anana, maracuya

TIPOLOGIA: Aurkespen-eta aktibazio-jokoa

KELBURUAK:

- Taldeko pertsonen izenen ezagutza finkatzea.
- Norberaren gorputza eta taldearen energia mobilizatzea.

PARTE-HARTZAILEAK: 12 urtetik gorako 20-30 lagun.

DENBORA: 15-20 minutu.

MATERIALAK: Bat ere ez

ORIENTABIDEAK: Anana eta Maracuya hitzak proposatzen dira jardueraren oinarri. Hitz horiek aldatu egin daitezke taldearen testuinguruaren arabera, baina garrantzitsua da garbi izatea zer hitz erabiliko diren; kontua da kategoria berekoak izatea (kasu honetan frutak), abiapuntua kontzentrazioa eta erantzun azkarra estimulatzea baita.

Taldeko norbaitek ezizen bat erabili nahi badu bere izenarekin baino gehiago identifikatzen delako, aukera hori onar daiteke, eta parte-hartzaileari eskatuko



zaio azaltzeko zergatik sentitzen den identifikatuago ezizen horrekin. Horrek bide emango du izen bereziaren identitate-izaerari buruzko hausnarketa bultzatzeko.

Hitzordu espresa

PROBENTZIOA - EZAGUTZA - KONFIANTZA

TIPOLOGIA: Elkar ezagutzeko jokoa

KELBURUAK:

- Taldearen aurkezpena eta elkarren arteko ezagutza sustatzea.

- Pertsonen arteko komunikazioa bultzatzea

PARTE-HARTZAILEAK: 10 urtetik gorako 20-40 lagun.

DENBORA: 15-25 minutu.

MATERIALAK: Paperezko orriak eta arkatza (parte-hartzaile bakoitzeko bat)

JARDUERAREN GARAPENA: Bideratzen duenak taldeari eskatuko dio pertsona bakoitzak paper-orri batean erloju bat marrazteko eta, bertan, 12, 3, 6 eta 9 zenbakiak jartzeko (orduei dagozkienak, hurrenez hurren). Ondoren, bakoitzak lau hitzordu espres izango dituela azalduko du, marraztutako ordu bakoitzean bat, eta, horretarako, lau lagun bilatu behar dituztela. Hitzordu bakoitzean landu beharreko gaiak askotarikoak izan daitezke. Hasi aurretik gaiak zehaztea gomendatzen da, errazak eta taldea osatzen duten pertsonen inguruneak, pertsonalak baina ez intimoegiak. Adibide gisa, honako galdera hauek egin daitezke: 3, zer kirol gustatzen zaien, ikusten duten, praktikatzen duten edo jarraitzen duten; 6, zer ikasi nahiko luketen; 9, nora bidaiatu nahiko luketen; 12, zer amets edo desira duten. Ondoren, taldeari jakinarazten zaio minutu bat baino ez dutela hitzorduetako pertsonak bilatzeko. Pertsonak bilatu ondoren, eskatuko zaie 3retako hitzordua izan zuten pertsonarekin elkartzeko, ondoren 6etakoarekin, 9etakoarekin eta 12etakoarekin. Jarduera hau egiteko, 2-5 minutu bitartean emango zaie hitzordu bakoitzeko.

GOGOETA: Zer gertatzen da hitzorduak egin aurretik, egin bitartean eta egin ondoren? Zer sortzen du pertsona ezezagunekin partekatzeak? Zer gaik motibatu ninduten niri buruz gehiago partekatzera? Nola sortu zen elkarrizketa? Nor hasi zen hitz egiten?

ORIENTABIDEAK: Landu beharreko gaiak, hitzorduaren arabera, aldatu egin daitezke taldearen testuinguruaren arabera. Garrantzitsua da taldeari buruzko informazioa izatea, galderak egiteko.

Burbuilak

PROBENTZIOA - TALDEAK SORTZEA - KONFIANTZA

TIPOLOGIA: Konfiantza-jokoa

KELBURUAK:

- Taldekideen konfiantza garatzea
- Taldean lan egitea
- Kontzentrazioa eta erantzukizuna lantzea

PARTE-HARTZAILEAK: 8 urtetik gorako 20-30 pertsona.

DENBORA: 15-30 minutu.

MATERIALAK: Begietarako benda, talde bakoitzeko bat.

JARDUERAREN GARAPENA: Gehienez ere 10 laguneko taldeak osatzen dira, parte-hartzaileek eskutik heltzen diote elkarri, zirkulu bat eginez. Pertsona bat zentrora pasatzen da, eta begiak itxita, aske ibiltzen da espaziotik. Erdian dagoenari hau esaten zaio: “mugitu nahi duzun eta behar duzun bezala”. Asmoa da gainerako taldekideek, haren inguruan besoak gurutzatuta zirkulu bat eginez, erdian dagoenaren mugimendua laguntzea eta babestea hura ukitu gabe, edozer gauzarekin behaztopa egin ez dezan. Burbuila mugimenduan erritmoz eta norabidez alda daiteke, zirkuluaren erdian dagoena mugitzen den moduaren arabera. 3 minututik 5 minutura ematen zaio erdian dagoen pertsonari, eta rol hori txandakatu egingo da, behartu gabe, baizik eta nahi dutenek erdira



pasatzera gonbidatuz eta burbuilarekin babestuz..

GOGOETA: Konfiantza izan dut taldean? Zenbat kostatu zait jarduera egitea? Nola sentitu naiz erdian nengoela? Nola sentitu dira burbuilarena egiten eta babesten? Konfiantzari buruz hitz egin, galduz gero gertatzen denaz, taldearen eta bakoitzaren erantzukizunaz, blokeo pertsonalez, talde-lanaz eta abarrez.

ORIENTABIDEAK: Garrantzitsua da inor ez behartzea erdian jartzera, konfiantza prozesu pertsonala baita, eta bakoitzak parte hartu behar du, taldean konfiantza sentitzen duenean. Kontuan izan beharreko beste alderdi bat da taldeak kontzentratuta eta isilik geratu behar duela, erdian mugitzen den pertsonari segurtasuna emateko.

Auto-garbitzailea/Bikotekako masajea

PROBENTZIOA - TALDEAK SORTZEA - ESTIMUA

TIPOLOGIA: Konfiantza-, estimu- eta erlaxazio - jokoa

KELBURUAK:

- Bikoteen arteko konfiantza garatzea
- Gorputzeko oztopoak haustea
- Erlaxazioa eta kontaktu fisikoa sustatzea

PARTE-HARTZAILEAK: 8 urtetik gorako 8-40 pertsona.

DENBORA: 10 minutu.

MATERIALAK: Musika lasaigarria jarduera egiteko (aukerakoa)

JARDUERAREN GARAPENA: taldea bikoteka banatzen da, lehenbizi pertsona bat autoa izango da eta bestea auto-garbitzailea; 5 minuturen ondoren, rola aldatu egingo dira. Bideratzaileak autoa ondo garbitzeko jarraibideak eman behar ditu: lehenik eskuekin eta era sinbolikoan, ura botatzen zaio autoari; gero, zirkuluak eginez, xaboia jartzen

zaio; gero, ur gehiago botatzen zaio; hatzak leunki pasatzen dira autotik, eta, gero, lehortu egiten da, putz eginez.

GOGOETA: Taldearen erlaxazio-maila baloratzea. Nola sentitu dira?

Kosta egiten zaie besteak ukitzea? Zer ematen die taldean kontaktu fisikoak? Etab.

ORIENTABIDEAK: Garrantzitsua da erlaxazio-giroa sortzea.

Entzute aktiboa

PROBENTZIOA - TALDEAK INDARTZEA - KOMUNIKAZIOA

TIPOLOGIA: Komunikazio-jokoa

KELBURUAK:

- Komunikazioa lantzea entzute-elementuaren biez.
- Entzute aktiboaren parte diren elementuak lantzea eta bereiztea.

PARTE-HARTZAILEAK: 8-20 lagun, 15 urtetik aurrera.

DENBORA: 20 minutu.

MATERIALAK: Jarraibideak dituzten paperak.

JARDUERAREN GARAPENA: Banatu taldea bikoteka (batzuk "A" izango dira, eta beste batzuk "B"), eta espazioan sakabanatuko dira. Pertsona bakoitzak A edo B motako papertxo bat jasoko du, non ariketan jarraitu beharreko argibideak adierazten diren. Papera irakurri eta gorde egin behar dute, ezer esan gabe; batez ere, ez aipatu bikotekidearekin. Mundu guztiak bere papera hartu, irakurri eta arauak ulertu ondoren, jarduera A direnek hasiko dute, beren bizitzan (edo asteburuan, edo azken oporretan, etab.) gertatu zaien zerbait 3 minutuan kontatuz. B direnek entzun egin baher dute, beren papertxoan idatzita zeuden aruei jarraituz. Denbora igaro ondoren, rola aldatu egingo dira, eta B direnek kontatuko dute zerbait 3 minutuz, eta A direnek entzun egingo dute, beren papertxoetako jarraibideen



arabera. Denbora bukatuta, zirkulu handi komun batera itzuliko gara, eta jarduera ebaluatuko dugu.

GOGOET: Nola sentitu gara entzuten eta hitz egiten A edo B izan garenean? Entzutean izaten diren horrelako jarrerak ba al dute lekurik normalean eguneroko bizitzan? Nola sentitzen gara ondo entzuten ez gaituztenean? Nola sentitzen gara aktiboki eta adi-adi entzuten gaituztenean? Jabetzen al gara entzutearen parte diren elementu horietaz (begirada, gorputz-jarrera, parafraseatzea, sakontzeko eta ulertzeko galderak, etab.)?

ORIENTABIDEAK: Lapertxoetan dauden jarraibideak erabat kontraesankorrak dira. Pertsona batzuek A papera jasoko dute, non entzute aktiboa osatzen duten zenbait elementu agertzen baitira, eta B papera jasotzen duten pertsonak entzute aktiboaren aurkako jarraibideen arabera jokatu behar dute. Hona hemen aginduak:

A papera:

- Interesa erakutsi
- Hitz egiten dizun pertsonaren begietara begiratu.
- Elkarrizketaren gaiari buruzko galderak egin.
- Ez eten bestearen hizketa.
- Fisikoki hurbil egon.
- Entzutzen ari zarela erakusten duten keinuak egin (irribarre egin, buruarekin baieztatu, “aha”...).

B papera:

- Interes gutxi erakutsi.
- Ez begiratu hitz egiten ari den pertsonaren begietara. Beste lekua batzuetara begiratu.
- Eten bestearen hizketaldia.
- Gaiak aldatu, zuri gertatu zaizun edo une horretan pentsatzen duzun zerbaiti buruz hitz eginez.
- Urruntasun fisikoa erakutsi.

Aulki zonbia

PROBENTZIOA - TALDEAK SENDOTZEA - LANKIDETZA

TIPOLOGIA: Joko kooperatiboa

KELBURUAK:

- Talde-lankidetzaren sortzea
- Energia eta talde-kohesioa aktibatzea
- Komunikatzeko eta estrategiak sortzeko moduak aztertzea

PARTE-HARTZAILEAK: 8 urtetik gorako, 10-40 lagun.

DENBORA: 10-15 minutu.

MATERIALAK: Aulkiak (ahal dela besorik gabe)

JARDUERAREN GARAPENA: Taldea espazioan ausaz banatutako aulkietan eserita egongo da. Boluntario bat, aulkia utzi, eta zutitu egiten da. Bideratzailea hastea gomendatzen da. Pertsona hori espaziotik irteten eta pixkanaka oinez sartuko da (zonbi bat balitz bezala), eta aulki hutsa bilatu eta eseriko da. Bien bitartean, gainerako pertsonak aulkitik jaiki eta beste edozeinetan eseri ahal izango dira, haien artean komunikatu eta lankidetzan arituz, zutik dagoen pertsona eser ez dadin. Esertzea lortzen badu, eseri den aulkian zegoenak zonbiaren lekua hartuko du.

GOGOETA: Taldean estrategiak sortzeko buruz elkarrekin hitz egitea, zonbia ez esertzea lortzeko. Nola komunikatu dira? Norbait ez da inoiz mugitu bere aulkitik? Norbait asko zutitzen zen bere aulkitik? Nola erreakzionatu dugu zonbia hurbil zegoenean?

ORIENTABIDEAK: Ekintzaren aldaera bat izan daiteke taldeari, hasi baino lehen, denbora bat ematea estrategia bat egin dezan. Era berean, ondoren ezin dela hitz egin dioen araua ezar daiteke, horrela komunizazio modu berriak aztertzeko.



Banku batean ordenatzea /Enbor bat ibaian

PROBENTZIOA - TALDEAK SORTZEA - LANKIDETZA

TIPOLOGIA: Joko kooperatiboa eta erabakiak hartzekoa

KELBURUAK:

- Taldeko pertsonak ezagutzea
- Kontaktu fisikoa erraztea, gorputz-oztopoak apurten joateko
- Talde-lana erabakiak hartzea eta laguntza kooperatiboa sotzea

PARTE-HARTZAILEAK: 8 urtetik gorako 10-40 pertsona.

DENBORA: 10 minutu.

MATERIALAK: aulkiak edo bankuak; aurrekorik ez balego, zinta itsaskorra erabil daiteke lurrean.

JARDUERAREN GARAPENA: Ilaran jarriko dira taldekide adina aulki, eta horiek aulkien gainera igoko dira. Bankuak erabiliz gero, nahikoa leku egon behar du taldekide guztiak bankuaren edo bankuen gainean sartzeko. Taldekide guztiak aulki edo bankuaren gainean daudenean, esango zaie beren urtebetetzeetako hilabeteen arabera ordenatu behar direla, urtarrilekoak ilararen mutur batean jarrita, eta gainerako hilabeteetakoak horien atzetik, abendukoetara iritsi arte beste muturrean. Inor ezingo da aulkietatik edo bankuetatik jaitsi. Hilabete berekoek beren urtebetetze-eguna ere kontuan hartu beharko dute, eta hilabete bakoitzeko lehen egunetakoak jarriko dira aurrean, eta horrela hurrenez hurren, hilabete azken egunetara iritsi arte. Ordenatuta daudela uste dutenean, ahots ozenez esango dute bakoitzaren urtebetetze-eguna eta hilabetea, ondo ordenatuta dauden ala ez egiaztatzeko.

GOGOETA: Nola funtzionatu duen lan-taldeak: elkarri lagundu dioten edo ez; jarduera egin aurretik talde-antolakuntza bat egon den, edo bakoitzak bere ondoan zuenaren arabera

mugitu den; denen artean erabaki duten edo norbaitek izan duen protagonismoa, nola jokatu antolatzeke; denak batera mugitu diren edo banan-banan mugitu diren, etab. Azkenik, gainerakoekin izan dugun ukitze fisikoari dagokionez, nola sentitu garen ebaluatuko da.

ORIENTABIDEAK: Aulkirik edo eserlekurik ez badago, zinta itsaskorra jar daiteke lurrean, bi lerro paralelo eginez, lerro horien artean jar daitezten eta beti bi lerroen arteko espazioa zapalduz mugi daitezten, bertatik atera ahal izan gabe.

Hitz egiterik ez izatea da aldaera bat; orduan, zeinu eta keinuen bidez komunikatu behar da, hitzezkoak ez diren beste komunikazio-bide batzuk erabiliz. Horrela, komunikazioan sormena sustatzearen aldeko apustua ere egiten da.

Gure urtebetetzeen hilabeteen arabera ordenatu beharrean, jaio ginen hilabeteke egunen arabera soilik ordenatu gaitezke, edo gure izenen inizialen arabera (alfabetoaren ordenari jarraituz), edo adinaren arabera (txikienetik handienera), etab.

Oso garrantzitsua da kontuz ibiltzea inor aulkietatik edo bankuetatik ez erortzeko. Takoiak edo plataformadun zapatak dituztenak hobe da oinutsik ibiltzea. Jarduera egiten den bitartean, bideratzailea gertu egon daiteke, eta, batzuetan, beharrezkoa ikusiz gero, eskua eman diezaieke altueragatik beldur handiagoa izan dezaketen pertsonen edo gorputzean gaitasun gutxiago dutenei.

b. Indarkeriak.

JARDUERAREN GARAPENA: Gutxi gorabehera 5 laguneko taldeetan, orri bat eta arkatx bat banatu, eta talde



bakoitzak izen bat jarriko dio bere taldeari. Taldearen izenak taulan edo karteldegian idatziko ditu arduradunak. Talde bakoitzak pertsona bat aukeratuko du, eta pertsona hori arduratuko da paperezko orrian idazteaz.

Ariketa honetan datza: bideratzaileak hitz bat esango du, eta talde bakoitzak hitz horrekin lotutako 7 hitz idatziko ditu. Amaitzen duen lehen taldeak idatzitako hitzak dituen orria altxatu eta taldearen izena esango du, hitzak irakurriko ditu eta, talde guztien iritziz, esandako hitzarekin erlazionatuta badaude, puntu bat emango zaio.

Idea hau da: aukeratutako kontzeptuetatik abiatuta, hausnartzeko balio duten hitzak idaztea. Aukeratutako kontzeptura iritsitakoan, talde guztien hitzak idatziko dira taulan, eta hortik ekingo zaio landu beharreko kontzeptuari.

Hitzen stop

HELBURUAK:

- Talde-lana sustatzea
- Taldeen arteko lehia sortzea, dinamika-motak kontrastatzeko
- Politikoki zuzenak ez diren zenbait kontzepturi buruzko definizioak ematea

PARTE-HARTZAILEAK: 10 urtetik gorako 10-30 pertsona.

DENBORA: 15-40 minutu.

MATERIALAK: Orriak, arkatzak, taula edo karteldegia.

GOGOETA: Lehia-dinamiken zereginari buruz hausnartzea da asmoa, sortzen dituzten emozio eta sentipenei buruz, horiek aukera ematen baitute politikoki zuzenak diren jarrerak alde batera uzteko, hautatutako kontzeptuei dagokienez.

ORIENTABIDEAK: LHitzek argi eta garbi idatzita egon behar dute. Garrantzitsua da hitz orokor eta arruntekin hasia, jardura gero eta konplexuagoa eginez, hautatutako kontzeptuetara iritsi arte. Ordena honetan amaitzea gomendatzen

da: gatazka, bakea eta indarkeria. Ordena oso garrantzitsua da, taldeek egindako hitzen hautaketa zehaztuko baitu. Jarraibide argiak eman behar dira eta taldearen adostasuna lortu, dinamikak tentsioak sortzen baititu puntuatu behar denean.

...(r)en argazkia (Irudi-antzerkia lantzen)

HELBURUAK:

- Irudi-antzerkia lantzen hasia
- Berezkotasuna, irudimena eta sormena sustatzea
- Irudi bat interpretatzeko aukera anitzak lantzea.

PARTE-HARTZAILEAK: 12 urtetik gorako 10-20 pertsona.

DENBORA: 30 minutu.

MATERIALAK: Bat ere ez.

JARDUERAREN GARAPENA: ETaldea espazioaren alde batean kokatzen da, eta eszenatoki bihurtuko den espazioaren beste zati bat hutsik geratuko da. Bideratzaileak hauxe dio: “...(r)en argazki bat ekarri dugu”, eta gai bat aipatuko du. Parte-hartzaileak, beren borondatez, agertokira joango dira, eta behar beste denbora emango dute prozesuan dagoen konposizioari behatzeko, eta planteatutako egoera zehatz horren irudia osatzen joango dira. Talde guztiak ez du irudiaren zati bat egin behar, nahi dutenak baino ez dute egingo. Ondoren, jendeari galdetuko zaio (irudian ez dauden parte-hartzaileak dira) zer ikusten duten: hasiera batean deskribapena alderdi formaletan oinarritzen da (adib., pertsonak zutik, maila baxuan, etab.), eta gero interpretazioak egingo dira, eduki posibleak deskribapenak (adibidez: botere-harremanak ikusten diren, erasorik dagoen, zer emozio diren nagusi, testuinguru jakin horretatik zer komunikatu nahi duten). Irudian botere gehien nork duen eta zergatik duen ere galdetuko zaie; baita nork duen gutxien ere.



GOGOETA: Irudi baten aukera anitzei buruz gogoeta egiteko bide ematen du; zer irakurketa-maila dauden; zer den begien bistakoa eta zer imajinatzen dutan (gorputz-mailak, botere-harremanak, emozioak, espazioaren oreka); ikusleak ez tapatzearen edo haiei bizkarra ematearen garrantzia.

ORIENTABIDEAK / IRUZKINAK:

EGarrantzitsua da irudia osatu nahi duten pertsonen eskatzea gainerako pertsonen proposamenei behatzeko irudian sartu aurretik, bai eta denbora batez mantentzeko gorputz-jarrerak aurkitzeko ere. Ikusleei sortutako irudia deskribatzeko eskatzean, alderdi formal hutsetik hasia gomendatzen da, gero interpretazioei bide emateko. Irudia egiteko proposatzen diren gaiei dagokienez, lehenengoek egunerokoak izan behar dute, eta gero bide eman kontzeptuei buruzko lanari: indarkeria, bakea, etab. Pertsonaia bakoitzari ahotsa ematea aldaera bat izan daiteke.

Makinak

HELBURUAK:

- Gorputzaren eta soinuaren arteko arlazioa aztertzea.
- Gorputzaren bidez kontzeptuak eta egoerak irudikatzea

PARTE-HARTZAILEAK: 12 urtetik gorako 6-20 pertsona.

DENBORA: 20 minutu.

MATERIALAK: Bat ere ez.

JARDUERAREN GARAPENA: Taldea espazioan ibiliko da, eta bideratzaileak norbaiti gelditzeko eta mugimendu bat eta soinu errepikakor bat egiteko eskatuko dio. Proposatutako soinua eta mugimendua ikusi ondoren, bideratzaileak gainerako parte-hartzaileei eskatuko die nahi duten mugimendu eta soinu errepikakor bat egiteko, aurretik proposatutakoak osatuz eta kontaktuan jarritz. Garrantzitsua da talde guztiak makinaren zati bat ez egitea; horrela, kanpoan geratzen

direnei zer ikusten duten galdetuko zaie (ikusten duten horretatik hasita, begi-bistatik hasita: zutik dauden pertsonak, eserita daudenak), zer gertatzen den (egoera posibleak imajinatu), zer izen emango lioketen makinari. Ondoren, makinako parte-hartzaileei eskatuko zaie, bakoitzaren mugimendua eta soinua aldatu gabe, “gatazka” batetik funtziona dezatela. Ikusleei galdetuko zaie orain zer ikusten duten. Ondoren, hasierako makinara itzultzeko eskatuko zaie parte-hartzaileei, eta, orain, makina maitasun-bertsio bat bihurtzeko, bakoitzaren mugimendua eta soinua aldatu gabe. Galdera berak egingo zaizkie ikusleei.

GOGOETA: Zer gatazka ematen du kolektibizatu dela? Hasierako makinak ba al du gatazkarik? Zer behar edo arazo azaldu dira lan-talde horretan? Interesgarria da hausnarketa bat planteatzea makinaren eta teknologiaren izaerari buruz; izan ere, gizakiak sortu dituzten, ideologia eta printzipio ideologiko bat dituzte inplizituki.

ORIENTABIDEAK: Behin baino gehiagotan erantzun daiteke taldean, guztiek parte har dezaten. Halaber, hasiera-hasieratik agindu daiteke zer makina-mota egin behar den (adibidez, familiaren makina egitea), gai zehatz baten inguruko arazoen eta irudimenezko ideien mapa bat egiteko.

C. Maskulinitateak

Genero-maskarak

HELBURUAK:

- GHausnarketa kolektiboa egitea gizarte-erakuntzari eta

PARTE-HARTZAILEAK: 12 urtetik gorako pertsonak.

DENBORA: ordu eta erdi.



JARDUERAREN GARAPENA: Materiala lan-espazioan jarriko da, estetikoki eta sormena pizteko moduan. Parte-hartzaile bakoitzari kartoi mehe baten 8/10 hartzeko eskatuko zaio, eta, materiala prest dutela, maskara bat sor dezaten eskatuko zaie, non dekorazioak tarte bat utiko duen, ondoren gainean esaldiak idazteko (dekorazioak ezin du mozturro osoa okupatu). Taldea bere maskarak sortzen hasten denean, haurtzaroan entzuten zituzten abestiak gogoratzeko eskatzen zaie, eta bozgorailuan erreproduzituko dira. Haurtzaroa gogoratzea da helburua. Beren maskaretan lanean jarraitzen duten bitartean, garai hartan parte hartzen zuten jolasak gogoratzeko eska dakieke. Maskara egiteko lanak gehienez 45 minutu iraungo du.

Behin maskara amaituta, honako galdera hauek egingo zaizkio taldeari: Zer kontatu zizuten gizon/emakume izateari buruz? Eta nork esan zizun? Galdera horien erantzunak maskaren gainean idazteko eskatuko zaie, horretarako utzitako espazioetan eta letra argiz. Behin hori eginda, maskarak jartzeko eskatuko zaie gizonari (makilatxo bati itsatsita), eta zirkulu bat egiteko kanpora begira; bitartean, emakumeek (maskararik gabe) zirkulu bat egingo dute barrura begira.

Emakumeei ibiltzeko eskatuko zaie, gizonen maskarek zehatz-mehatz begiratu eta haietan idatzitakoa irakurri. Denbora baten ondoren, tokiak aldatu egingo dira, emakumeak, beren maskarak jarrita, barruko zirkulura joango dira, eta gizonak maskarek eta esaldiei arretaz begiratu dizkiete. Azkenean, denek maskarak jarri eta denak ikusten ibiliko dira. Maskara guztiak irakurtzen amaitu ondoren, bideratzaileak taldekideei eskatuko die zirkuluan dauden aulkietan esertzeko, “konturatzen diren horretaz” denen artean hausnartzeko.

GOGOETA: Nola sentitu zarete maskara

egiten/haurtzaroa gogoratzen/esaldiak idazten? Nola sentitu zarete maskara jantzita izan duzunean eta besteak begira egon direnean? Zer erlazio dago esaldien eta gizon eta emakume izatearen eraikuntza sozialaren artean? Zer lotura du jarduera horrek genero-sinesmen eta -aginduekin? Zein da familiaren eta hazkuntzaren zeregina agindu horietan?

ORIENTABIDEAK:: Jardueraren oinarria sormenarekin eta haurtzaroarekin lotuta dago; beraz, taldearen erritmoa irakurri behar da, kontzentratzea lor dezaten.

Maskulinitate hegemonikoaren mapa

HELBURUAK:

- Maskulinitate hegemonikoaren ezaugarri fisiko, estetiko eta emozionalei buruz taldean hausnartzea.

PARTE-HARTZAILEAK: 12 urteko gorako 20-30 gizonetzko, (talde ez-mistoetan lan egitea gomendatzen da).

DENBORA: ordu bat eta erdi

MATERIALAK: Paper jarraituko orria, karrozari-zinta, koloretako markatzaile lodiak.

JARDUERAREN GARAPENA: 7 gizonetzko osatutako taldeetan, paper-orriak karrozari-zintarekin lotzeko eskatuko zaie, eta paperari buelta eman ondoren, parte-hartzaileetako bat haren gainean etzango da. Gainerako taldekideek markatzaileak erabiliz marraztuko dute gizonaren ingurua paperaren gainean, gizon baten silueta markatu arte. Ondoren, taldeari eskatuko zaio banaka hausnartzeko kulturalki “gizon izateagatik” izan/eduki/agertu behar duten alderdi fisiko, emozional eta estetikoei buruz.

Gero, taldean beren aurkikuntzak partekatze eskatuko zaie, eta horiek irudikatzen, marrazten edota idazteko, paper-orrian dagoen gizonaren siluetaren gainean. Asmoa da, hitzean



eta eztabaida diskurtsiboan geratzea baino gehiago, taldea orrira joatea eta parte-hartzaileen ekimen indibidual eta kolektibotik bere aurkikuntzak kontsignatzea. Ondoren, talde bakoitzak egindako silueta itsatsiko du, gainerako taldeek besteen siluetak ikusi eta kontrasta ditzaten, alderdi komunak, desberdintasunak eta osagarritasunak ikusiz.

GOGOETA: Zer da maskulinitate hegemonikoaren kontzeptua? Zein dira irudikatutako gizonaren ezaugarri fisikoak? Zein dira irudikatutako gizonaren ezaugarri emozionalak? Zer ondorio ditu horrek beste gizonekiko harremanetan eta emakumeekiko harremanetan? Zertan zarete berdinak zuek eta gizon hori? Nondik dator maskulinoa izatearen betebeharrak hori? Nolakoa izan liteke beste era bateko gizon bat?

ORIENTABIDEAK: Garrantzitsua da hasieratik nabarmentzea mapeoa sozialki eta kulturalki estereotipo gisa inposatzen den gizonetik abiatzen dela; nabarmendu behar da kontua ez dela nahi dugun idealera joatea edo politikoki zuzenak diren gaietan aritzea.

Talde misto batekin lan egitean, emakumei gizon baten silueta bat egiteko eska dakieke, eta haiek, beren bizipenen arabera, gizon hegemoniko horrek osatzen duen mapeoa irudikatzeko.

Gazteriaren collagea

HELBURUAK:

- Gizon edo emakume gazte izateak zer esan nahi duen hausnartzea gizarte-irajinariorik gabe.

PARTE-HARTZAILEAK: 12-20 urte bitarteko gizon eta emakumeak.

DENBORA: ordu bat eta erdi.

JARDUERAREN GARAPENA: 6 partaideko azpitaldeak osatuko dira. Azpitaldeak genero bereko pertsonak osatu behar dituzte, adinean homogeneotasuna egon dadin saiatuz.

Talde bakoitzean 1.80 metro luze den paper-orri bat hartu eta lurrean zabalduko da. Taldeko norbait paper-orriaren gainean etzango da eta gainerakoek haren silueta marraztuko dute koloretako errotuladoreekin. Silueta hori hiru zatitan banatuko da: burutik toraxaren erdira arteko zati bat (1). Beste zati bat toraxaren erditik izterreraino (2) eta, azkenik, izterretatik oinetaraino (3).

Talde bakoitzak bere silueta egin eta hirutan zatitu ondoren, azalduko zaie irudiak eta/edo hitzak bilatu behar dituztela aldizkarietan, eta guraizeekin moztu eta honela itsatsiko dituzte:

1. Burua eta toraxaren zati bat

- Gizarteak/kulturak zer dioten gazteek pentsatzen dutenari buruz
- Gazteek eta parte-hartzaileek zer pentsatzen duten

2. Toraxa eta izterrak

- Gizarteak/kulturak zer dioten gazteek hitz egiten dutenari buruz.
- Gazteek eta parte-hartzaileek zertaz hitz egiten duten.

3. Izterretatik oinetaraino

- Gizarteak/kulturak zer dioten gazteek egiten dutenari buruz.
- Gazteek eta parte-hartzaileek zer egiten duten.

45 minutu inguru emango zaie, gazteek silueta modu kolektiboan partekatu eta eraiki dezaten, lehenik eta behin, banakako bilaketa bat eginez eta, gero, talde osoarekin adostuz doazen heinean, egiten joan daitezten. Irudikatzeko irudi edo hitzik aurkitzen ez badute, idatz ditzakete. Siluetak amaitu ondoren, lan-espazioan itsatsiko dira, talde osoak ikus ditzan, inpresioak partekatzeko.

GOGOETA: Siluetak ikusita, zertaz



ohartzen dira? Zer alde dago gizonen eta emakumeen silueten artean? Zertan dira antzekoak? Ba al dago ezer komunik gizartearen arabera gazteek pentsatzen, hitz egiten eta egiten dutenaren eta gazteen irudien edo hitzen artean? Zer gertatzen da gazte gisa gizarateak nigandik nahi duenetik aldentzen naizenean? Zein dira gazteek bizi dituzten inplikazioak gizarateak nahi/eskatzen dienari ez jarraitzeagatik?

ORIENTABIDEAK: Garrantzitsua da aldizkariak espazioan sormena inspiratzeko moduan antolatzea. Siluetaren hiru aldeetako bakoitzaz arduratuko den pertsona bat izenda daiteke talde bakoitzean, irudiak edo hitzak biltzen joan dadin eta, taldean adostu ondoren, dagokion lekuan itsasteko.

d. Ahalduntzea.

Emakumearen collagea

HELBURUAK:

- Emakume garen aldetik, zer garen eta zer onartzen dugun hausnartzea
- Emakume gisa batzen gaituzten zubiak eta istorioak ehuntzea

PARTE-HARTZAILEAK: 20 pertsona bitarte

DENBORA: ordubate

JARDUERAREN GARAPENA: 5 pertsonako taldeak egin ondoren, aldizkarietatik eta material plastikoetatik abiatuta, emakume baten collage bat egingo dugu. Gorputz-silueta kolektibo baten forma izan dezake, gure silueta guztiak biltzen duen emakume bat irudikatzen duena. Siluetan, emakume gazteok ditugun elementu, sinesmen eta ezaugarri guztiak erregistratuko dira: nolakoa naizen, zer gustatzen zaidan, zer amets ditudan... Behin amaituta, collageak galeria batean jarriko ditugu eta behatuko diegu. Nola identifikatzen gara? Zer ezaugarri ditugu? Nire bizitzako zein egoeratan agertu dira nire sinesmenak

eta ezaugarriak? Ikusten al dut neure burua nire gertuko emakumeengan, nire familiako emakumeengan ...?

GOGOETA: Nola gaude lotuta bertan gauden gorputz guztiak? Uste al duzue sinesmen eta ezaugarri horiek berdinak direla gizon eta emakumeengan? Zein dira inpaktuak/kalteak nire gorputzean? Nola sentitzen naiz horrekin?

Esku hauekin

HELBURUAK:

- Zentzumenak aktibatzea gorputz-atalen memoriaren bidez
- Autokontzientzia eta gorputzaren pertzepzioa sortzea.

PARTE-HARTZAILEAK: 20 pertsona bitarte

DENBORA: 15 minutu.

JARDUERAREN GARAPENA: Espazioan ibiliz, bikoteak osatuko dira. Gorputzaren atal ezberdinek zer egin duten eta zer bizi izan duten kontatzean datza jarduera. Bikoteko pertsona bat hasten da gorputzaren atal batekin: adibidez, eskuei buruz hitz egiteko eskatuko zaie, eta, esaterako, esango dute: "Esku hauekin... kafea bildu dut...". Denbora jakin baten ondoren, bikoteko beste pertsonak jarraituko du gorputzaren atal berarekin. Bikoteko bi pertsonak gorputzaren atal beretik pasatu direnean, bideratzaileak gorputzaren beste atal bat izendatuko du, eta jarduerak aurrera jarraituko du.

ORIENTABIDEAK: Garrantzitsua da zentzumenak erabiltzen dituzten gorputz-atalak aipatzea. Jardueraren izaera dela eta, oso garrantzitsua da taldea bateratuta egotea; izan ere, bizitza-historiei lotutako egoera emozionalak sor daitezke, eta taldeak prozesatzen jakin behar ditu.

GOGOETA: Onartzen ditut nire gorputzaren atal bakoitzaren garrantzia eta memoria? Nola erabili dut atal bakoitza? Ba al dago gorputz-



atalen batekin bereziki zerikusia duen emoziorik edo historiarik? Zer gertatzen da gorputz-ataletan dauden sentipenekin? Elkarrekin erlazionatuta daude? Horietako bakoitza lotuta dago eragin handia izan duen gorputzeko atal batekin. Zer kalte eragin ditu patriarkatuak nire gorputzean?

Mugak

HELBURUAK:

- Mugak jartzeko moduak identifikatzea
- Mugak jartzeko hainbat modu probatzea

PARTE-HARTZAILEAK: 20-30 pertsona

DENBORA: 15 minutu.

JARDUERAREN GARAPENA: Taldea bitan banatuko da eta bi ilaratan (A eta B) jartzkoa eskatuko zaie, bata bestearen aurrean, elkarri begira, bien artean 10 urratseko distantzia dagoela. A ilarako pertsona bakoitzak B ilarako pertsona bat izango du aurrean. A ilarako pertsonak aurreko bikotekidearengana hurbiltzen joateko rola izango dute, haren espazioa inbaditzeko asmoz, eta bikotekideak muga argi bat jartzen diela sentitzen dutenean bakarrik gelditu beharko dute. A ilarako pertsonak muga bat jarri beharko diote gerturatzen denari. Jarduera mugamotek markatutako hiru unetan egiten da: lehenik begiradarekin, bigarrenik gorputzarekin eta begiradarekin, eta azkenik, begiradarekin, gorputzarekin eta ahotsarekin. Amaitzean, rola aldatzen da.

ORIENTABIDEAK: Jarduerarekin bat egin dezaten, begiak ixteko eska dakieke taldekideei, eta imajinatzeke egoera erreal batean daudela; adibidez, norbaitek haiengana hurbildu nahi duela, haiei enbarazu egitera, haien baimenik gabe.

GOGOETA: Zer gertatzen zait mugak jartzen ditudanean? Zer txandatan

sentitu naiz erosoago,? Zein egin zait zailagoa? Zer gertatzen da barre egiten dudanean edo urduri jartzen naizenean? Noiz sentitzen dut muga argia jartzen didatela?



5 BIBLIOGRAFIA

Benítez, Luis, González, Santiago eta Maiques, Mar (2019) “¿Se puede enseñar a construir culturas de paz a través del arte? Una reflexión desde la apuesta pedagógica de la Corporación Otra Escuela”, in *Saberes y prácticas pedagógicas socioculturales artísticas*, Flores, Ana Lucía y Mina, Jesús (biltz.), Unicatólica, Cali.

Burton, John (1990) *Conflict: Resolution and Provention, Virginia: Center Conflict Analysis and Resolution*, George Mason University, The Macmillan Press.

Goleman, Daniel (2010) *Inteligencia Emocional*, Kairós argitaletxea, Bartzelona. .

Freire, Paulo (2012 [1992]) *Pedagogía del Oprimido*. Siglo XXI argitaletxea, Espainia.

InteRed (2017) *Gazteak zaintzak biziz*. Gazteen gizarteko parte-hartzea bultzatzeko proposamena.

InteRed (2019) *Posicionamiento Institucional de InteRed por una Educación Transformadora*.

InteRed (2019) *Coeducando hacia una ciudadanía global comprometida por un mundo libre de violencias machistas*.

Jares, Xesús (1999) *Educación para la paz. Su teoría y su práctica*, Editorial Popular, Madrid.

Lander, Edgardo (Compilador) (2000) *La colonialidad del saber: eurocentrismo y ciencias sociales*, CLACSO, Buenos Aires.

Maiques Díaz, Mar eta Correal Cabezas, Ximena (2015) *Entre parches y caminos: herramientas de educació Centro Regional de Derechos Humanos y Justicia de Género n para la paz con justicia de género*, Corporación Humanas. - Centro Regional de Derechos Humanos y Justicia de Género.

Mora, Francisco (2013) *Neuroeducación. Sólo se aprende aquello que se ama*, Alianza Editorial, España.

Otra Escuela, (2015) *¿Se puede enseñar a construir culturas de paz a través del arte? Una reflexión desde la apuesta pedagógica de la Corporación Otra Escuela*.

Salas Silva, Raul (2003) “¿La Educación necesita realmente de la Neurociencia?” *Estudios Pedagógicos*, 29, 2003, 155.-171. or., Universidad Austral de Chile, Valdivia (Txile).

Sharp, Gene (1973) *La política de la Acción Noviolenta*, Boston, Porter Sargent Publishers.

Subirats, Marina (1994) “Conquistar la igualdad: la coeducación hoy” in *Género y Educación*, Revista Iberoamericana de Educación, 6. 1996ko iraila-abendua.



